

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Gipuzkoa**

2019





AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legea betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen Kontuei buruzko iritzia.....	13
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	15
III.A Gipuzkoako Foru Aldundia	15
III.A.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	15
III.A.2 Zerga-sarrerak	15
III.A.3 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	16
III.A.4 Dirulaguntzak.....	17
III.A.5 Sorospen-zerbitzuak eta gizarte-politiketako hitzarmenak	19
III.A.6 Langileen gastuak.....	20
III.A.7 Ondarea	20
III.B Erakunde autonomoak	21
III.B.1 Langileen gastuak.....	21
III.B.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	21
III.C Merkataritzako foru sozietateak.....	22
III.D Foru fundazioak.....	22
IV. FINANTZAREN ANALISIA	23
IV.1 GFaren aurrekontuaren emaitza doitua	23
IV.2 GFaren diruzaintza geldikina eta zorpetzea	24
IV.3 Erakunde autonomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak	25
IV.4 Ondorioa	25
IV.5 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna	26
V. URTEKO KONTUAK	29
V.1 Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuak.....	29
V.2 Foru erakunde autonomoen kontuak.....	32
V.3 Merkataritzako foru sozietateen kontuak.....	36
V.4 Foru fundazioen kontuak.....	38



ERANSKINAK	41
A Gipuzkoako Foru-sektore publikoaren kontu bateratuak.....	41
B Gipuzkoako Foru Aldundia	43
B.1 Alderdi orokorrak	43
B.2 Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak	44
B.3 Langileen gastuak.....	46
B.4 Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	48
B.5 Transferentziak eta emandako dirulaguntza arruntak eta kapitalezkoak	49
B.6 Inbertsio errealak eta ibilgetua.....	54
B.7 Sarrerak, zerga-zordunak eta -hartzekodunak	57
B.8 Transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak.....	60
B.9 Ibilgetu finantzarioa eta aktibo finantzarioak	61
B.10 Zorrak eta finantza gastuak	62
B.11 Zordunak eta hartzekodun ez-aurrekontukoak	64
B.12 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko kontziliazioa	65
B.13 Kontratazioaren analisisa	66
B.14 Dirulaguntzen analisisa.....	71
C Foru erakunde autonomoak	73
C.1 Langileen gastuak.....	73
C.2 Kontratazioaren analisisa	74
D Merkataritzako foru sozietateak.....	77
D.1 Ibilgetu ukiezin eta materiala eta epe luzeko zuzkidurak.....	77
D.2 ibilgetuko inbertsioak eta lzakinak	78
D.3 Epe motzeko finantza inbertsioak	79
D.4 Zorpetzea eta finantza gastuak.....	79
D.5 Langileen gastuak.....	80
D.6 Hornidurak eta ustiapeneko bestelako gastuak.....	81
D.7 Bestelakoak	81
D.8 Kontratazioaren analisisa	82
E Foru fundazioak.....	83
E.1 Dirulaguntzek eragindako sarrerak	83
E.2 Langileen gastuak.....	84
E.3 Moneta-laguntzak	84
E.4 Jardueraren beste gastu batzuk	85
E.5 Kontratazioaren analisisa	85
ALEGAZIOAK	87



ÍNDICE

ABREVIATURAS	105
I. INTRODUCCIÓN	107
II. OPINIÓN.....	109
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad de las entidades que integran el Sector Público Foral	109
II.2 Opinión sobre las Cuentas de las entidades que integran el Sector Público Foral	111
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	113
III.A Diputación Foral de Gipuzkoa	113
III.A.1 Presupuesto y contabilidad	113
III.A.2 Ingresos fiscales	113
III.A.3 Contratación de bienes y servicios	114
III.A.4 Subvenciones	115
III.A.5 Servicios asistenciales y convenios políticas sociales.....	117
III.A.6 Gastos de personal	119
III.A.7 Patrimonio.....	119
III.B Organismos Autónomos	119
III.B.1 Gastos de personal	119
III.B.2 Contratación de bienes y servicios	120
III.C Sociedades Mercantiles Forales	120
III.D Fundaciones Forales.....	121
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	122
IV.1 Resultado Presupuestario Ajustado de la DFG	122
IV.2 Remanente de Tesorería y Endeudamiento de la DFG	123
IV.3 Organismos Autónomos, Sociedades Mercantiles y Fundaciones Forales.....	124
IV.4 Conclusión	125
IV.5 Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera	125
V. CUENTAS ANUALES.....	128
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.....	128
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos Forales.....	131
V.3 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales	135
V.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	137



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ANEXOS	139
A Cuentas consolidadas del Sector Público Foral de Gipuzkoa	139
B Diputación Foral de Gipuzkoa	141
B.1 Aspectos generales	141
B.2 Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso	142
B.3 Gastos de personal	144
B.4 Gastos corrientes en bienes y servicios	146
B.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas	147
B.6 Inversiones reales e inmovilizado	152
B.7 Ingresos, deudores y acreedores tributarios	155
B.8 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital	158
B.9 Inmovilizado financiero y activos financieros	159
B.10 Deuda y gastos financieros	160
B.11 Deudores y acreedores no presupuestarios	162
B.12 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	163
B.13 Análisis de contratación	164
B.14 Análisis de subvenciones	169
C Organismos Autónomos Forales	171
C.1 Gastos de personal	171
C.2 Análisis de contratación	172
D Sociedades Mercantiles Forales	175
D.1 Inmovilizado intangible y material y provisiones a largo plazo	175
D.2 Inversiones inmobiliarias y existencias	176
D.3 Inversiones financieras a corto plazo	177
D.4 Endeudamiento y gastos financieros	177
D.5 Gastos de personal	178
D.6 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	178
D.7 Otros	179
D.8 Análisis de contratación	180
E Fundaciones Forales	181
E.1 Ingresos por subvenciones	181
E.2 Gastos de personal	182
E.3 Ayudas monetarias	182
E.4 Otros gastos de la actividad	183
E.5 Análisis de contratación	183
ALEGACIONES	185

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 25a

Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2021



LABURDURAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
BPG	Barne Produktu Gordina
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
ENP	Enpresa
FA	Foru Araua
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GHHKPI	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra
GHK SA	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SA
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
IAGFE	Irabazi asmorik gabeko familiak eta erakundeak
IEB	Inbertsioen Europako Bankua
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
LZ	Lanpostuen zerrenda
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua
PI	Prozedura irekia.
PIE	Prozedura Ireki Erraztua
PIH	Prozedura Ireki Harmonizatua
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
TE	Toki-erakundea





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2020rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2019ko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak informazioa eman behar du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondarearen egoerari buruz, ekitaldiaren ekonomia eta ondarearen emaitzei buruz eta aurrekontuen likidazioari buruz; besteak beste, honako agiri hauek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuek eta kudeaketa txostenak.
- Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen urteko kontuek.
- Foru sektore publikoaren bateratutako kontuak

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa honako hauek osatzen dute:

- Foru Administrazioa, Foru Aldundian gorpuzten dena.
- Erakundeen administrazioa, ondoko foru erakunde autonomo hauek osatzen dutena:
 - Uliazpi Fundazioa, zeinaren xedea eta jarduera adimen ezgaitasun larria duten pertsonak eta haien senitartekoak artatzea den.
 - Kabia, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta egikaritzea helburu duena.
- Merkataritzako foru sozietateak (guztiak ere GFAk % 100ean partaidetutakoak):
 - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA (IZFE SA), foru eta toki administrazioari informatika zerbitzuak ematen dizkiona.
 - Bidegi-Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA; sozietatearen xedea A-8 eta AP-1 autobideak, horien instalazio eta zerbitzuak mantendu, zaindu, eraiki eta ustiatzea da.
 - Etorlur, Gipuzkoako Lurra SA, zeinaren xedea lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta jarduera ekonomiko, etxebizitza eta era guztietako ekipamendu publikoak besarkatuko dituen lurzorua saldu eta erostea den. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza-lanetarako erabilgarria den lurzorua erosi eta kudeatzea ere helburu du.
- Foru fundazioak:
 - Kirolgi Fundazioaren xedea da Gipuzkoako kirola sustatu eta garatzea, lehentasunezko arreta eskainiaz errendimenduko kirolari, bereziki babesletza publiko eta pribatuak erakarriz.
 - Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoa bitarteko iraunkorrak instalatzea suteen prebentzioari eta itzaltzeari eta beste gai osagarriei buruzko trebakuntzako eta prestakuntzarako; eta, oro har, salbamenduko gaietan adierarik zabalenean, zeinetan erreferente izan nahi duen.
 - Adinberri Fundazioa, zeinaren helburua baita Gipuzkoako berrikuntza-potentziala ahalik eta gehien handitzea, zahartze osasungarriaren, gizarte- eta osasun-sistemaren bikaintasunaren eta arlo horretako industriaren lehiakortasunaren zerbitzura.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Gipuzkoako Klima Aldaketarako Fundazioa, zeinaren funtzioak baitira GFari laguntzea klima-aldaketak Gipuzkoan duen eragina aztertu, behatu eta kontrolatzen eta Gipuzkoako klima-aldaketaren aurkako borroka-estrategiaren aurrerapausoen ebaluazio- eta jarraipen-prozesua bermatzea.
- ZIUR Fundazioa, zeinaren xedea den eskualdearen gaitasuna indartzea fabrikazio aurreratuaren arloan, bereziki zibersegurtasun industrialean, sektore teknologikoaren garapena sustatuz eta Gipuzkoako enpresen nazioarteko lehiakortasuna eta posizionamendua indartuz, bereziki sektore industrialekoak.
- MUBIL Fundazioa, 2019ko maiatzaren 15ean eratu zen eta helburua da GLHren gaitasunak indartzea elektromugikortasun gaitetan, mugikortasun elektrikoari lotutako sektorearen garapena sustatzea eta Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna eta kokalekua nazioarte mailan indartzea.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: GFaren kontuak, erakunde autonomoen kontuak eta merkataritzako sozietateen kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Erakunde autonomoek, merkataritzako sozietateek eta foru fundazioek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.

II. IRITZIA

II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2019an 56 langileri guztira 2 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikulua arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 Faren 9. artikulua arabera (ikus B.3 eranskina).
2. GFAk gizarte zerbitzuetako zortzi kontratu, animaliak tratatzeko lau zerbitzu-kontratu eta ibilgailuak hornitzeko kontratu bat izapidetu ditu SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusten duen 3 hilabeteko aurrerapenik gabe. Aurreko esleipendunek zerbitzuak eta hornidura ematen jarraitzen dute behin kontratuak amaitu ostean; honela, bada, espedienterik gabeko gastua 2019ko ekitaldian 10,8 milioi euro izan da (ikus B.13.2).
3. GFAk hamalau hornitzaileekin kontratatuta du arreta goiztiarraren tratamendu-zerbitzua; 2019ko ekitaldian gastua 1,2 euroena izan da, espedientea izapidetu gabe, eta prozedura irekia erabili behar zatekeen horietan. Gainera, GFAk kontratu txikien bitartez baso-lanak egikaritu ditu hamabi hornitzaileekin 1,7 milioi euroren zenbatekoan; horiek, baina, prozedura ireki erraztu bidez izapidetu behar ziratekeen.
4. GFAk zuzenean kontratatuta ditu informazio- eta publizitate-zerbitzuak hedabideetan zazpi hornitzaileekin, 534.336 euroren zenbatekoan, zerbitzu horien prestaziorako indarreko kontratua alde batera utzita.

ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA

5. GFAk uste du Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2019an langile bati guztira 32.302 euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikulua arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 Faren 9. artikulua arabera (ikus eranskina).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KABIA FORU ERAKUNDE AUTONOMOA

6. 2019ko ekitaldian Kabiak egikaritzen jarraitzen du iraungitako 2 kontratu, 2018an transferitutako egoitzen aurreko toki-erakunde titularrek euren gain hartu eta sinatutakoak, eta ez dira abiarazi zerbitzuak kontratatzeke kontratazio-espedienteak; honela, bada, 3,1 milioi euro gastatu dira kontratazio-espedienterik gabe (ikus C.2).

FORU FUNDAZIOAK

7. Adinberrik, Gipuzkoako Klima Aldaketarako Fundazioak eta Ziur Fundazioak, hurrenez hurren, 3, 3 eta 4 lan kontratu finko gauzatu dituzte, birjartze-tasarik izan gabe eta honenbestez, 2018ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean aurreikusitakoa urratuz, 2019an indarrean dagoena.

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN KONTUEI BURUZKO IRITZIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. Guztizko Diruzaintza Geldikina eta Ondare Garbia 2019ko abenduaren 31n 10,9 milioi euroan gehitu behar dira eta 42,9 milioi euroan murriztu, hurrenez hurren, ondoko doiketen ondorioz:

ERANSKINA	Euroak milakotan	
	D. Geldikina 2019.12.31	Ondare Garbia 2019.12.31
B.5 Etxez etxeko zerbitzuaren 2019ko 4. hiruileko gastuak	(2.048)	(2.048)
B.7.2 Zor fiskalak gauzatan biltzeagatik erakundeen konpromisoak	-	(40.913)
B.7.2 Zordun eta hartzek. tributarioak, hornidurak kenduta, aurrekontuan islarik gabe....	12.975	-
GUZTIRA	10.927	(42.961)

2. 2019ko abenduaren 31n konpromiso-kredituen egoerak ez ditu barne hartzen 2020-2029ko aldiaren GHKri egin beharreko 59 milioi euroren transferentzien konpromisoak, 2019-2030 GHHKPI onartzen duen martxoaren 20ko 6/2019 FAREN 8. artikulua agintzen duen moduan. Urteko kontuen oroitidazkiak ere ez du konpromiso horien berri ematen (ikus B.5.4 eranskina).
3. Ibilgetu material eta ukiezina, 2019ko abenduaren 31n 2.918,3 milioi euroren amortizazio-kostu garbia izan duena, ez dago kontu-sail jakinetarako inbentario batean euskarritua, zeinaren kostu garbia guztira 1.901,5 milioi euroena baita; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera (ikus B.6.2 eranskina).
4. GFAk, 2019ko abenduaren 31n, zaharren egoitzen hamabi eraikinen doako lagapena jaso zuen GLHko udal batzuen eskutik; horiek GFAREN ibilgetuko atal dira eta kudeaketa Kabia erakunde autonomoaren esku dago. Egoera-balantzeak ez du jasotzen eraikin horien balorazioa, eta ez da formalizatu titulartasunaren transmisioa, zeina gehienez lagapena sinatu eta bederatzi hileko epean egin behar baitzen. Halaber, egoera-balantzean erregistratzeke daude Lazkaoko, Zumaiako eta Zumarragako egoitzen obra publikoen administrazio esleipenak.

BIDEGI SA

5. BIDEGI, SAk 10,9 eta 10,2 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen 2018ko eta 2019ko ekitaldietan, hurrenez hurren, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat GLHko A-15 eta N-1 edukiera handiko errepideen zati jakin batzuk erabiltzeko kanona arautzen duten 7/2016 eta 6/2018 Foru Arauak aplikatuz. Arau horien aurka administrazioa auzi errekurtsioak aurkeztu ziren EAEJANen aurrean, zeinak, 2018ko apirilaren 9ko eta 2020ko maiatzaren 5eko epaien bidez, zuzenbidearen aurkakoak izendatu eta baliogabetu egin baitzituen arauak; GFAk kasazio-errekurtsioa aurkeztu zuen Auzitegi



Gorenaren aurrean. 2019ko abenduaren 31n Urteko Kontuak mamitu zirenean, zalantzazko egoera bat zegoen eta ez zen horren berri eman kontuetan.

Auzitegi Gorenak 2021eko otsailaren 16an adierazi du ez dela bidezkoa 7/2016 Foru Arauaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa. Ezin izan da kuantifikatu deuseztapen horrek BIDEGI SAK Foru Arau horren babespean aitortutako diru-sarreretan izan dezakeen eragina eta, ondorioz, 2019ko abenduaren 31n Sozietatearen Ondare Garbian izan dezakeen eragina.

Berebat, txosten hau idatzi dugun datan, BIDEGI SA sozietateak 6/2018 Foru Arauaren babesean aitortutako diru-sarrerei buruzko ziurgabetasunak bere horretan dirau.

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA SA

6. Azkoitiko Intsausti eremuan egin asmo den sustapenaren zehaztugabetasun egoerak eta eremu horretako lursail eta eraikinen gaineko aditu independenteen balorazio-ezak sozietatearen aktibo arruntean balorazioaren zuzentasunaren gaineko ondoriorik ematea eragozten du, zeina 3,8 milioi eurorena baita (ikus D.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

III.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- GFAREN konpromiso-kredituen aurrekontuaren % 31,6 soilik iristen da gastua baimentzeko fasera eta 115,2 milioi euro aurrekontu-fasean geratzen da, egikaritu gabe. Horregatik guztiagatik, uste dugu konpromiso-kredituen aurrekontua berrikusi beharko litzatekeela, ekitaldian aurreikusi diren urte anitzeko jarduketak modu xehakatuan gehitzeko (ikus B.2.2).
- GFAk ordainketa-kreditu bat sortu du 2019ko ekitaldian, eta konpromiso-kreditu bat 2020ko ekitaldirako, 900.000 euroko eta 1,1 milioi euroko zenbatekoekin, hurrenez hurren, Mubil Fundazioa hartuko duen lurtzia erosteko, zeinaren transmisioa 2020ko ekitaldian egin baita. Beraz, ordainketa-kredituaren eta konpromiso-kredituaren periodifikazioa ez dator bat finantzaketarekin, prezioa bere horretan ordaindu baita 2020an salerosketako eskritura publikoa formalizatu denean.
- GFAk "Inbertsio errealak" kapituluaren errepideak mantentzeko gastuak kontabilizatu ditu, 49,2 milioi euroren zenbatekoan, eta beste erakunde batzuentzat egindako lanak eta instalazioak eta beste batzuk, 8,8 milioi eurorenak; ondarean kudeaketa arrunteko gastuen atalean erregistratzen dira, ez kapitalizagarritzat jotzen diren eragiketak jasotzeko (ikus B.6.1).
- GFAk 23,3 milioi euro ordaindu ditu (ekitaldiko ordainketa guztien % 6), Merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legearen aurreikusten den hogeita hamar eguneko epea gaindituz (15/2010 Legeak eta 4/2013 Errege Dekretuak aldatutakoa, ekintzaileei laguntzeko, hazkundera estimulatzeko eta enplegu-sorrerarako neurriei buruzkoak).

III.A.2 ZERGA-SARRERAK

2019ko ekitaldian zorra zatikatzeko zazpi eskabide daude, 4,8 milioi euroren hasierako zenbatekoa zutenak; horiek, baina, ebazteko daude oraindik eta zatikapena emateko finkatutako gehieneko epea baino antzintasun handiagoa daukate, 6 hilabetekoa dena.



III.A.3 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio-espeditenteak (ikus A.13.1)

2019ko ekitaldian esleitutako eta lehenagoko ekitaldietan esleitu eta ekitaldi horretan egikaritutako kontratazio espeditenteak aztertzetik honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Guztira 18,4 milioi euroan esleitutako hamaika espeditentetan (9, 12, 18, 20, 21 eta 29 zk. espeditenteak), "prezioa" irizpidea baloratzeko erabiltzen den formulak ez ditu jarraitzen 2018ko ekainean Foru Gobernuaren Kontseiluak kontratazioaren kudeaketan onartutako praktika egokien gomendioak, formula hori erabiltzeko arrazoiak arrazoitu gabe.
- Guztira 10,5 milioi euroan esleitutako hamabi espeditentetan (1, 3, 4, 5, 7tik 11ra, 20, 21 eta 29 zk. espeditenteak), esleipen-irizpideen artean ez dira barne hartu ez irizpide sozialak ez ingurumenekoak ere, eta horiek % 5eko gutxieneko haztapena izan beharko lukete obren kasuan, eta % 10ekoa horniduren eta zerbitzuen kasuan; halaber, ez da erantsi irizpide horiek erabiltzearen komenigarritasunik eza justifikatzen duen txosten arrazoiturik, sektore publikoko kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeari buruzko 11/2014 Foru Arauaren 12.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espeditentetan (5, 6 eta 8 espeditenteak), esleipen-ebazpenak ez du esleipen hori eragin duen arrazoiak jasotzen.
- Donostiako Txara 1 eraikina eraberritzeari dagozkion proiektuak idazteko eta beste azterketa tekniko osagarri batzuk egiteko espeditentea eta obren zuzendaritza esleitu gabe dago txosten hau egin den datan, eskaintzak jasoak izan arren; kontratuaren lizitazioa 2019ko maiatzean egin zen, 931.700 euroren zenbatekoarekin.
- Errepide bidezko bidaiarien garraioen emakida kontratuei dagokienez, GFak ez du 2019ko aurrekontuan erregistratu beharreko urteko likidazioa gauzatu.

Kontratazioko espeditenterik gabeko gastua eta kontratu txikiak

- Haurtzarorako arreta espezializatuaren arloko hezkuntza-babes indibidualerako zerbitzuak (prozedura ireki bidez esleitutako kontratuen zerbitzu osagarriak), 2019ko ekitaldian 961.558 euroren gastua izan dutenak, kontratu txiki moduan izapidetzen dira; ordea, aleko prezioen bidez esleitu beharko lirateke, kontratu nagusiaren esleipenarekin batera.
- Ekitaldian zehar, suhiltzaileen hainbat janzkien hornidura erosi da, hamar enpresarekin, eta ekitaldian 139.165 euroren gastua eragin dute eta suhiltzaileen ibilgailuen mantentze-zerbitzua, berriz, sei enpresarekin kontratatu da, guztira 135.781 euroan; ordea, litekeena zen prozedura ireki sinplifikatu batzuk izapidetzea.
- Kontratu txikien xedearen analisisian, 34 jarduketa hauteman dira guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoa egin dutenak, eta, xedearen homogeneotasuna eta gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta, prozedura ireki sinplifikatu eta laburtuak egin beharko ziratekeen, kontratatzailearen profileen publikotasuna emanez (ikus B.13.2).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailak eta Uliazpi Fundazioa eta Kabia erakunde autonomoek hirugarren batekin kontratatu dute material sanitarioaren eta ortopedikoaren hornidura, 58.483, 57.009 eta 27.475 euroan, hurrenez hurren; beraz, gomendagarria litzateke kontratu horiek Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez bideratzea.

Hitzarmenak

- Gizarte-politika sailak emakumeak eta haurrak artatzeko psikologoek kontratazioa Gipuzkoako Psikologoek Elkargo Ofizialarekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmen baten babesean egiten du, arreta psikologikoa emateko hiru programatan esku hartuko duten profesionalak homologatzeko; 2019ko ekitaldian 1 milioi euroren gastua eragin du. GFak Elkargoari eskatu behar lioke proposatutako profesionalak hautatzeko gauzatu dituen ekintzak egiazta ditzala.
- Hazi Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, 2019ko irailaren 30era arte ez da onartu ekitaldiari dagokion kudeaketa-mandatu espezifikoak, hitzarmenean aurreikusten dena eta burutu beharreko ekintzak eta haiei esleitutako zenbatekoak zehazten dituenak. Beraz, ekitaldian zehar prestazioak egikaritu dira horiek babesteko tresna juridiko egokirik gabe; ondorioz, mandatua gastua sortu aurretik sinatzea gomendatzen da, zeina 2019ko ekitaldian 717.711 eurorena izan baita. Bestalde, SPKL indarrean sartzean, eskagarria da baliabide propioei egindako enkarguak kontratazio-plataforman argitaratzea, eta, beraz, gomendagarria litzateke bai urteko mandatu espezifikoak bai 2020an amaituko den mandatu orokorra SPKLren aurreikuspenetara egokitzea.

III.A.4 DIRULAGUNTZAK

Alderdi orokorrak

- GLHren dirulaguntzei buruzko Foru Arauak agintzen du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzeko obligazioa dagoela dirulaguntzen deialdi eta emakida-ebazpenei buruzko informazioa. 2015eko uztailaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Estatuko Administrazioaren eta EAeko Administrazioaren arteko Kooperaziorako Bitariko Batzordearen akordioa eta bertan erabaki zen Kontzertuaren Batzorde Mistoak beharrezko diren erabakiak bideratuko dituela informazio-bidalketa hau gauzatzeko. Txosten hau idatzi dugun datan ez dira erabaki horiek hartu eta GFak ez du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera arautegian aurreikusitako informazioa bidali.

Bestalde, eta datu-base horretan argitaratu beharreko informazioari dagokionez, martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz (130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publikotasuna arautzen dituenak), Europako araudian ezarritakoa betetzeko Estatu Kide bakoitzak estatuaren laguntza gaietan argitaratu beharreko edukiei dagokienez, uste dugu dirulaguntzen espedienteetan justifikatu



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

beharko litzatekeela, hala dagokionean, Europako Batzordearen 1407/2013 eta 651/2014 Erregelamenduen aplikazioa, barne merkatuarekiko laguntzen bateragarritasuna dela-eta.

- Bost espedientetan ikusi dugu onuradunak ez duela eskagarria den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana egiaztatu (dirulaguntza izendunen 5. eta 7. espedienteak; dirulaguntza zuzenen 9. espedientea, deialdien 6. espedienteko bi eranskin eta aurreko urteetako 5. espedientea) (ikus B.14).

Dirulaguntza izendunak (ikus B.14)

- Irabazi asmorik gabeko bi erakunderi emandako bi dirulaguntzatan (1 eta 6 espedienteak), guztira 276.292 euroren zenbatekodunak, ez da diruz lagundutako jardueraren aurrekontu bat aurkeztu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 700.000 euroren dirulaguntza ematen dio kirol-sozietate anonimo bati, klubak 2018-2019 ACB ligan duen partaidetza finantzatzen laguntzeko (2019ko urtarriletik ekainerako aldia) eta saskibaloia sustatzeko (7. espedientea). Sozietatearen 2018-2019 aldiko kontu auditatuek 136.534 euroren etekina erakusten dute; beraz, dirulaguntza emateko foru-aginduan aurreikusitakoaren arabera, ordaindutako zenbatekoa berrikusi beharko litzateke, diruz lagundutako jardueraren kostua ez gainditzeko.

Dirulaguntza zuzenak (Ikus B.14)

- Diputatuen Kontseiluak 1,3 milioi euroren zenbatekoan emandako zuzeneko zortzi dirulaguntzatan (1, 2, 3, 4, 5, 9, 10 eta 12 zk. espedienteak), ez da egiaztatu espedienteetan deialdi publiko bat egiteko zailtasunik dagoenik eta dirulaguntza emateko ezohiko modu hori erabiltzen denik. Bestalde, dirulaguntza emateko espezifikotasuna edo errepikakortasuna kontuan hartuta, araudian zuzeneko emakidarako aurreikusitako beste moldea erabili zitekeen, aurrekontuetan modu nominatiboan sartuta, onuraduna, dirulaguntzaren xedea eta entregaren xedea adierazita.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 100.000 euroko dirulaguntza zuzena eman dio fundazio bati (6. espedientea), zeinaren patronatuan parte hartzen baitu, urteko ekitaldi batekin lotutako gastu batzuk finantzatzeko. Dirulaguntza hori urteko aurrekontuan sartu behar zen, eta fundazioaren estatutuetan Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitutako ehunekoaren arabera finantzatu behar zen.
- GFAk ez du GAO n argitaratu dirulaguntza zuzen baten emakida (7 zk. espedientea), 400.000 euroren zenbatekoduna.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 378.000 euroren aparteko ekarpena (8. espedientea) egin dio sozietate publiko partaidetu bati, sozietateak 2018ko ekitaldian egitea onartu zituen inbertsio batzuk finantzatzeko (finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan jaso gabe zegoela), eta ordainsari-igoeretatik eratorritako langileen gastuak finantzatzeko, nahiz ez den igoera horiek aplikatzeko lege-baldintzak betetzen direla egiaztatu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 83.000 euroko zuzeneko dirulaguntzan (12. espedientea), GFAREN eta onuradunaren artean ezartzen den harremana kontratu-harreman baten esparruan ezarri beharko litzateke, eta ez dirulaguntzetan, onuradunak prestakuntza-zerbitzu batzuk ematen baititu GFak eskatuta.

Deialdi publiko bidez emandako dirulaguntzak (ikus B.14)

- Guztira 3,1 milioi euroren dirulaguntzak ematen dituen deialdi batean (3. espedientea), dirulaguntza emateko behin betiko ebazpenaren datak hiru hilabete eta hiru astean gainditzen du deialdia argitarazen denetik sei hilabeteko gehieneko epea, araudian aurreikusitakoa.

Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzak justifikatzea (ikus B.14)

- 2018an 1,2 milioi euroren dirulaguntza eman zen (600.000 euro 2018ko aurrekontuan eta 650.355 euro 2019ko aurrekontuan) (2. espedientea), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste administrazio publiko batzuekin % 33,3an finantzatu zituen obrak, 521.000 euroko zenbatekoarekin, eta 2019ko abenduaren 31 baino lehen ekipamendu teknologikoan egin beharreko inbertsioak, 730.000 euroko zenbatekoarekin. Data horretan egindako inbertsioaren justifikazioa 538.030 euro da eta ondoren 2020an 149.116 euroan egindako inbertsio gehigarrien justifikazioa aurkeztu du.
- Deialdi batean ez dira egiaztatu diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-sarrerara eta dirulaguntza batzuk (5. espedientea).

III.A.5 SOROSPEN-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKETAKO HITZARMENAK

GFak gizarte zerbitzuak emateko izenpetutako kontratu, hitzarmen eta kontratu-programen 2019ko ekitaldiko tarifak orokortasunez aplikatutako ehunekoetan igo ditu (2019ko igoerak 6,1 milioi euroren gastua eragin du), nagusiki zerbitzu ematen duten langileen soldata-igoerarekin loturikoak (ikus B.5.2). Tarifa-igoera hauekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Aztertu ditugun gizarte-zerbitzuen kontratuetan (ikus B.13.1) -2019a baino lehenagoko ekitaldietan esleitutakoak-, ez dira izenpetutako klausuletako pleguen aurreikuspenak aplikatu, dela prezioak berrikusteko klausularik jasotzen ez zutelako (2014tik aurrera kontratatutakoak), dela klausulek KPIren % 85eko berrikuste-klausulak jasotzen zituztelako (2014 baino lehenago kontratatutakoak), onartutako igoerak baino txikiagoa dena.
- Kontratu-programak 2017ko ekitaldian aurreko ekitaldietan izenpetutako hitzarmen gehienak ordezkatuz izenpetu ziren eta hitzarmenetan gertatzen zen moduan, hauetan ere ez da zehaztu zein prezio-berrikuspen aplikatuko zaien. Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak, Espainiako Ekonomia Desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duenak, 5. artikuluan ezartzen du eskulanaren kostuak berrikusitako baliora aldatu ahal izango direla, eta kostu horiek ezin izango dutela gainditu sektore



publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariek izandako igoera; honela, bada, Sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 21/24 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluko Bi zenbakian xedatutakoaren arabera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko % 2,25eko igoera ezartzen du, bai eta BPGren bilakaerari lotutako 0,25eko ordainsari-igoera gehigarria ere. Ondorioz, prezioak berrikusteko lege-aurreikuspenak ez dira kontuan hartzen.

Azkenik, gizarte zerbitzuak ematean hitzarmenaren eta kontratu-programaren figura erabiltzeari dagokionez, azpimarratu behar dugu abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, dioela kontzertuaren araubidea dela gizarte zerbitzuak emateko lehentasunezko lankidetzaren formula euskal administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean eta ez dela araudi bidez arautu, eta hitzarmenaren eta kontratu-programaren moldea gordetzen dela irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitateentzat, betiere jardueraren edo zerbitzuaren berezitasunak, izaera presako edo berritzaile eta esperimenezkoak egokiago egiten badu hitzarmen eta kontratu-programa horiei kontzertuko araubidearen baldintzak ez aplikatzea. GFAk erregistratu duen hitzarmen eta kontratu-programetatik eratorritako gastutik 38,8 milioi euro (ikus B.5.2) enpresa pribatuekin gauzatzen dira.

III.A.6 LANGILEEN GASTUAK

- GFAk 2019ko ekitaldirako produktibitate-osagarri ez finkagarria onartu du lan-absentismoaren indizeari loturik; osagarri hau 630 eta 700 euro bitarteko ordainketa bakarrean ordaintzen da eta 2019ko ekitaldian 1,2 milioi euroren gastua eragin du. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- Aurrekontuaren eranskinetan barne hartutako plantilla 2.124 plazakoa da (2.097 plaza 2018an) (ikus B.3). Aurrekontuan jasotako plaza modura barne hartu dira lanpostuen zerrendaz besteko diren aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 99 kontratu, suhiltzaileen ordezkapeneko 20 kontratu eta Egogain egoitzarako 14 zaintzaile kontratu. Gure iritzira aurrekontu-plantillak soil-soilik plaza bati loturik dauden kontratazioak jaso behar ditu; alabaina, programako bitarteko aldi bateko kontratazioak, ordezkapenak, e.a. gastuaren aurrekontuko diru-izendapenaren zenbaketan soilik hartuko dira kontuan.

III.A.7 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Diputatuen Kontseiluak onetsi, GLHren Ondareari buruzko 8/1996 FAren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.

III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.B.1 LANGILEEN GASTUAK

Uliazpi

Uliazpi Fundazioak 2019ko ekitaldian, GFaren produktibitate-osagarriaren asimilazio-kontzeptuan, 2019ko ekitaldiari dagokion 700 euroren ordainsari bat ordaindu du, guztira, 184.372 euroren gastua ekarri du. Ordainketa horrek izaera ez kontsolidagarria du, eta kontratatutako urteko lanaldiarekiko proportzioan ordaintzen da. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.

Kabia

- 2019ko ekitaldian, Kabiak bi ordainsari ordaindu dizkie GFaren hitzarmena aplikatzen zaien langileei (udaletatik transferitu ez diren langileei), GFaren produktibitate-osagarriaren asimilazio gisa, 200 eta 600 eurorenak, hurrenez hurren, 2017ko eta 2018ko ekitaldiei dagozkienak, eta 4.823 euroko gastua eragin du. Ordainsari horiek ez dira finkagarriak. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- LZ 13 lanpostukoa da, ez baititu barne hartzen Kabiak kudeatu dituen udal-egoitzetako lanpostuak; urteko kontuetan sartutako Oroitidazkiak 133 lanpostuko LPZ baten berri ematen du. Uste dugu LZn egin beharreko aldaketak onartu behar direla, udalek transferitutako langile guztiak islatzeko.

III.B.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

- Kabiak ez du administrazio-dokumentuan formalizatu, 2019ko ekitaldian, Elgoibarko adinekoen zentroko egoitza-zerbitzuaren kontratuaren luzapena (ikus C.2).
- Kabiak iraungita zeuden hiru kontraturi % 3,6ko tarifa igoera aplikatu die, 190.441 euroren gastua eraginez.
- Kontratazio-espediterik gabeko gastuaren analisisian 4 eta 3 jarduketa hauteman dira Uliazpin eta Kabian, 117.128 eta 156.983 euroren zenbatekoekin hurrenez hurren, eta, xedearen homogeneotasuna eta gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta, beharrezko prozedura ireki sinplifikatu eta laburtuak egin beharko lirateke, kontratatzailearen profilean publikotasuna emanda (ikus C.2).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.C MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

Bidegi SA

- Bidegi SAK 700 euroren ordainketa ez-finkagarri bat egin du 2019ko ekitaldian, GFAREN produktibitate-osagarriaren asimilazio-kontzeptuan, eta 14.300 euroren gastua ekarri du. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- Bidegi SAREN banku-kontuetako funtsak erabiltzeko baimena pertsona bakar batek du eta gomendagarria da sinadura mankomunatuak izatea.

Etorlur SA

Sozietateak, bi kontratu txikiren bidez, hornitzaile bakarrarekin kontratatu ditu mendiko larreen kudeaketa eta mendiko borden kudeaketa, guztira 36.288 euroren zenbatekoan; ordea, prozedura erraztu laburtu bat egin behar zatekeen. Gainera, aholkularitza juridikoa jasotzeko lau kontratu txiki izapidetu ditu, 22.946 euroren zenbatekodunak.

III.D FORU FUNDAZIOAK

Kirolgi Fundazioa

Fundazioaren Patronatuko Batzordeak 2018-2019ko aldiko aurrekontua onartu du, kirol elkarteei emango zaizkien dirulaguntzen xehakapen banakatua eginez eta dirulaguntza izendun izaera emanez. Alabaina, xehakapen nominatibo hau ez zaio GLHren 2019ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari txertatzen, Batzar Nagusien aurrean aurrekontua onartzeko izapidetu dena. Dirulaguntza izendun izaera izan dezan, xehakapena aurrekontua izapidetzean barne hartu behar da. Fundazioaren kontuetan dirulaguntza hauen kontzeptuan erregistraturiko gastua 2,6 milioi eurorena da (ikus E.3). Bestetik, emandako dirulaguntzak justifikatzean ez zaie onuradunei eskatzen dagozkion gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana justifikatzeko, dirulaguntzei buruzko araudiak hala eskatzen duen kasuetan.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

IV.1 GFA-REN AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak:

	Euroak milakotan		
	2018	2019	Bariazioa 2019/2018
Sarrera arruntak	4.909.140	5.092.370	% 3,7
Zerga itunduak	4.837.365	5.024.129	% 3,9
Zerga ez-itunduak eta beste sarrera batzuk	21.327	17.807	
Transferentzia arruntak.....	50.138	49.923	
Ondare-sarrerak	310	511	
Erakunde konpromisoak	(4.062.950)	(4.226.523)	% 4,0
Estatuari kupoa	(315.634)	(314.505)	
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	(3.232.742)	(3.382.510)	
Udalei ekarpena	(514.574)	(529.508)	
Sarrera arrunt garbiak	846.190	865.847	% 2,3
Gastu arruntak	(625.349)	(653.973)	% 4,6
Langileen gastuak.....	(111.206)	(117.177)	
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	(127.583)	(129.148)	
Gastu finantzarioak	(2.937)	(2.337)	
Transferentzia arruntak.....	(383.623)	(405.311)	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	220.841	211.874	(% 4,1)
KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)	(131.186)	(132.106)	
Inbertsio errealeen besterentzea	51	844	
Kapital transferentziengatiko sarrerak.....	5.611	9.904	
Inbertsio errealetan gastuak.....	(91.855)	(102.379)	
Kapitalezko transferentziek eragindako gastuak	(44.993)	(40.475)	
FINANTZAKETAKO ERAGIKETEN SALDOA (3)	(24.650)	(94.930)	
Finantza aktiboen bariazio garbia	(335)	705	
Finantza pasiboen bariazio garbia	(24.315)	(95.635)	
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	65.005	(15.162)	
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)	(129)	61	
EMAITZARI DOIKETAK (5)	4.606	48.468	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5)	69.482	33.367	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

Aurrekontuko likidazioetatik eratorritako emaitza arrunta 2019ko ekitaldian 8,9 milioi txikiagoa izan da eta horrek % 4,1eko murriztea dakar. Izan ere, gastu arrunta sarrera arruntak baino gehiago igo da ehunekoetan. Izan ere, gastu arruntak % 4,6 egin du gora (nabarmenezkoa da transferentzia eta dirulaguntza arrunten gastua % 5,7 igo dela), eta 2019ko ekitaldiko zerga itunduen eta erakunde-konpromisoen kontzeptuko diru-bilketek % 3,9 eta % 4 egin dute gora, hurrenez hurren. Erakunde-konpromisoek diru-bilketaren gainean % 84 egin dute, bai 2019ko ekitaldian bai 2018koan.

Eragiketa arruntek eragindako 211,9 milioi euroren emaitzak bide ematen du kapitalezko eragiketen sarrera arruntan exekuzio garbia finantzatzeko, 132,1 milioi eurorena, eta finantzaketa-eragiketetako saldoaren zati handi bat, 94,9 milioi euroren zenbatekoan.

FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA

Finantzaketa-eragiketengatik diru-sarreraren gastu garbiak 70,3 milioi euro handitu dira 2019ko ekitaldian, batez ere 2019ko ekitaldian ez delako mailegu berririk sinatu (2018an 30 milioi euro zeuden), eta 2019ko aurrekontuan 35,3 milioi euroko kreditu-lerro baten murrizketa gastu gisa erregistratu delako.

AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

2019ko ekitaldian 33,4 milioi euroren aurrekontu-emaitza doitu 36,1 milioi euro murriztu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, batez ere aurreko atalean aipatutako finantzaketa-eragiketen gastua handitu delako eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuen doikuntzak 44 milioi euro handitu direlako.

IV.2 GFA-REN DIRUZAINZTA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

Hona hemen Diruzaintza Geldikinak eta baliatu gabeko maileguez izan duten bilakaera:

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	2018	2019
Diruzaintza Geldikina	(68.293)	(8.145)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	261.950	186.700
Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria	193.657	178.555

Diruzaintza Geldikina negatiboa da 8,1 milioi euroan, aintzat hartu gabe erabili gabeko maileguen finantzaketa, berehalako erabilgarritasunekoa, kreditu kontuen bitartez, 186,7 milioi euroren zenbatekora arte.

HKEEk proposatutako doiketak aintzat hartuta, 2019ko ekitaldi itxieran Diruzaintza Geldikina eta Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 10,9 milioi euro gehitu beharko lirake.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak milakotan	
	2018	2019
Erabilitako maileguak.....	291.995	280.410
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	261.950	186.700
Zorpetze erabilia eta erabili gabea	553.945	467.110
Maileguak amortizatzeko zuzkidura	26.400	35.200

Gutzizko zorpetzeak 86,8 milioi euro egin du behera 2019an, aurreko ekitaldiaren aldean Zenbateko hori gehi maileguak amortizatzeko horniduraren urteko zuzkidura (8,8 milioi euro), Finantza-pasiboen bariazioa kapituluaren aurrekontu-gastu gisa erregistratzen da, 95,6 milioi euroan.

2019ko urterako GFako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 7/2018 FAk, abenduaren 21ekoak, GFarentzat 2019ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 514 milioi euroan ezarri du. Berebat, maileguak amortizatzeko zuzkiduraren aurrekontuko diruzendapena 35,2 milioi euro izango dela aurreikusten du.

IV.3 ERAKUNDE AUTONOMOAK, MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK ETA FORU FUNDAZIOAK

Erakunde autonomoak, IZFE SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SA merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak ia osorik GFak eskualdatzen dizkien funtsen bidez finantzatzen dira eta honenbestez, GFaren kontuen finantza-analisiak haien eragiketarak ere besarkatzen ditu.

Bidegi SA sozietate publikoak ez du GFatik finantziatorik jaso 2019ko ekitaldian.. Egiten dituen inbertsioak sozietateak berak sortzen dituen baliabideen bitartez eta zorpetzearen bitartez finantzatzen dira. Honekin baterako taulak zorpetzeak eta negozio zifraren zenbateko garbiak izan duen bilakaera erakusten du:

BIDEGI SA	Euroak milakotan	
	2018	2019
Ekitaldi itxieran erabilitako zorra.....	722.238	673.765
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	141.042	145.253
Negozio zifraren/erabil. zorraren zenb. garb. % ...	% 19,5	% 21,6

2019ko urterako GLHko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 7/2019 FAk, abenduaren 21ekoak, Bidegi SA foru merkataritza sozietatearentzat 2019ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 681,8 milioi euroan ezarri du.

IV.4 ONDORIOA

2019ko ekitaldian diru-bilketak gora egin izanak bide eman du aurreko ekitaldiko kapitalezko eragiketen mailari eusteko eta GFaren guztizko zorpetzea 86,8 milioi euroan murrizteko.



2019ko ekitaldiko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren Oroitidazkiak jasotzen ditu COVID 19tik eratorritako ondorioak, 2019ko ekitaldiko urteko kontuetan eraginik ez dutenak; horrek ez du esan nahi 2020ko urteko kontuetan aintzatetsi behar ez direnik. Ondorio horiek GFaren kontuetan diru-sarrerak murriztea eragin dute 2020ko ekitaldian, eta horrek eragin nabarmena du emaitza arruntean; beraz, inbertsio-eragiketak eta finantza-eragiketak zorpetze gehiagorekin bideratu beharko dira; horri dagokionez, abenduaren 31n, kreditu-eragiketetan erabili gabeko saldoa 186,7 milioi eurokoa zen.

IV.5 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan, hurrenez hurren.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun Ministerioari igorri zaio eta administrazio horrek ez du salbuespenik adierazi.

GFA-REN MENDEKO DEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Kontu-hartzaitzak ezarritakoari jarraikiz, GFaren mendeko Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira:

- Foru administrazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Foru erakunde autonomoak: Uliazpi eta Kabia Fundazioak.
- Merkataritzako foru sozietateak: IZFE SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.
- Partaidetutako sozietateak: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK) SA, Bic Gipuzkoa Berrilan SA, Berroeta Aldamar SL, Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko SA, eta Garaia Berrikuntza Gunea S. Koop.
- Partzuergoak: Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Kontsortzioa.
- Fundazioak: Kirolgi Fundazioa, Mintzola Fundazioa, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa, Ekain Fundazioa, Adinberri Fundazioa, Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa, Ziur Fundazioa eta Mundubira 500 Fundazioa: Elkano Fundazioa.

Aurrekontuaren egonkortasunaren helburua

Aurrekontuaren egonkortasun helburua 2017ko uztailaren 7ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen. Kontu Orokorrean barne hartutako aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzko informazioak, "2019ko ekitaldiko Finantzaketa gaitasunari edo beharrari" buruzko atalean, guztira 96,2 milioi euroren

finantzaketa gaitasuna islatzen du. Estatuko Administrazio Orokorrari aurrekontuaren egonkortasunari buruz igorritako informazioa honakoa da:

	Euroak milakotan			
	Sarrera ez finantz.	Gastu ez finantz.	Doiketak	Finantzaketa gaitas./ (beharra)
GFA	5.179.652	(5.099.885)	421	80.188
Uliazpi Fundazioa	19.418	(19.073)	-	345
Kabia	38.071	(36.736)	-	1.335
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA	921	(895)	-	26
IZFE SA	29.077	(29.041)	-	36
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa	7.857	(3.652)	-	4.205
Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa	35.395	(26.973)	-	8.422
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza	3.380	(3.455)	-	(75)
GHK SA	29.704	(28.216)	-	1.488
Mintzola Fundazioa	245	(241)	-	4
Kirolgi Fundazioa	3.356	(3.356)	-	-
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa	691	(768)	-	(77)
Bic Gipuzkoa Berrilan SA	2.652	(2.399)	-	253
Berroeta Aldamar SL	530	(528)	-	2
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko SA	150	(32)	-	118
Ortizibia SA	105	(112)	-	(7)
Garaia Teknologia Parkea Koop S.	-	-	-	-
Ekain Fundazioa	400	(385)	-	15
Adinberri Fundazioa	1.038	(1.046)	-	(8)
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa	588	(722)	-	(134)
ZIUR Fundazioa	854	(813)	-	41
Mundubira 500 Fundazioa: Elkano	-	-	-	-
GUZTIRA	5.354.084	(5.258.328)	421	96.177

Gastuaren araua

Espainiar ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentziazko tasa 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietarako, 2017ko uztailaren 7ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen eta 2019ko urterako % 2,7an finkatu zen. Tasa hau aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastu konputagarriarekin biderkatzen da, ezargarria den gastu muga eskuratzeko. Gastu konputagarriak SEC10 terminoetan adierazitako enplegu ez finantzario modura definitzen dira, horietatik kenduta zorraren interesak, langabezia prestazioetan gastu ez aukerakoa, Europako Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik eratorritako helburudun funtsen bidez finantzatutako gastuaren zatia eta autonomia erkidegoei eta toki udalbatzei finantzaketa sistemai loturik egindako transferentziak.

2019ko ekitaldian arau hori ezartzeak 760,3 milioi euroren gastu zenbagarria erakusten digu; honenbestez, bete egiten da aurreko paragrafoan aipatutako mugaketa.



Zor publikoaren helburua

Zor publikoaren helburuari dagokionez, foru ogasunek duten berezitasunaren ondorioz beharrezkoa da Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak iritzia ematea, izan ere zor publikoaren helburua Barne Produktu Gordinaren ehuneko baten gainean finkatzen da; ordea, ehuneko hau ez da administrazio ezberdinen artean banatu (EAE eta foru aldundiak) eta honenbestez, ezin adieraz daiteke Gipuzkoako Foru Sektore Publikoak, SEC10 terminoetan, 2019ko urterako finkatutako zor publikoaren helburua bete duen edo ez.

2019ko abenduaren 31n GFaren eta bere baitako erakundeen indarreko zor publikoa, Ogasun Ministerioari jakinarazitakoa, 507,9 milioi euro da (GFA: 467,1 milioi euro, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa: 25,4 milioi euro, GHK SA: 14,7 milioi euro, Bic Gipuzkoa Berrilan SA: 0,4 milioi euro eta Berroeta Aldamar SL: 0,3 milioi euro). Bidalitako informazioan ez da jaso Garaia Teknologia Parkea Kooperatiba Sozietatearen 7,7 milioi euroren zorra.

GFA-REN MENDEKO SOZIEKATE EZ FINANTZARIOEN SEKTOREA ETA ERAKUNDE FINANTZARIOEN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Artekartzak 2019ko urterako finkatutakoari jarraikiz, GFaren mendeko Sozietate ez Finantzarioen Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira: Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA, SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa eta Gipuzkoako Urak SA.

Sozietate ez Finantzarioen Sektorearen eta Erakunde Finantzarioen Sektorean barne hartutako erakundeak desoreka finantzarioko egoeran daudela esaten da ezargarriak zaizkien kontabilitateko planaren irizpideen arabera galerak dituztenean eta horiek saneatzeko baliabideen zuzkidura beharrezkoa denean, baliabide horiek eman behar dituen erakundearen egonkortasun egoeran aurreikusi ez direnak. Definizio horren arabera, 2019ko ekitaldian, erakunde guztiak finantza oreka egoeran daude, bakar batek ere ez baitu galerarik izan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

Sarrerak	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Gauzat. kobrantsak	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Zerga zuzenak	B7.1	2.275.174	16.000	2.291.174	2.340.954	2.340.954	-
2.- Zeharkako zergak	B7.1	2.658.884	5.115	2.663.999	2.650.369	2.650.369	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	B7.1	57.179	6.886	64.065	50.613	50.613	-
4.- Transf. eta dirul. arruntak	B8	99.543	21.943	121.486	126.457	80.726	45.731
5.- Ondare sarrerak		416	300	716	511	341	170
6.- Inbertsio errealen besterentzea .		200	-	200	844	844	-
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B8	7.867	213	8.080	9.904	9.672	232
8.- Aktibo finantzarioak	B9	27.788	67.816	95.604	1.657	1.487	170
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		5.127.051	118.273	5.245.324	5.181.309	5.135.006	46.303

Gastuak	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Gauzat. ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Langileria gastuak	B3	119.955	(2.611)	117.344	117.177	117.168	9
2.- Gastu arrun. ondas. eta zerb.....	B4	135.529	2.315	137.844	129.148	113.160	15.988
3.- Pasibo finantzarioak	B10	7.300	(3.981)	3.319	2.337	2.068	269
4.- Transf. eta dirul. arruntak	B5	4.662.409	55.237	4.717.646	4.708.368	4.537.071	171.297
5.- Kontingentzia funtsa eta beste .		100	(100)	-	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	B6	111.180	8.882	120.062	102.379	83.512	18.867
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B5	40.213	9.901	50.114	40.475	22.760	17.715
8.- Aktibo finantzarioak	B9	1.650	1.710	3.360	952	952	-
9.- Pasibo finantzarioak	B10	48.715	46.920	95.635	95.635	95.635	-
GASTUAK GUZTIRA		5.127.051	118.273	5.245.324	5.196.471	4.972.326	224.145

B. AURREKO EKITALDIETAKO SARRERA ETA GASTUEN HONDARRAK

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliog.		
Zordunak	104.298	(2)	(69.747)	34.549
Hartzekodunak	(284.427)	63	284.340	(24)
AURREKONTU ITXIAK		61		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide aitortuak		5.181.309
- Obligazio aitortuak		(5.196.471)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA		(15.162)
Xahututako kredituak, atxiki gabeko diruzaintza geldikinarekin finantzatuak		48.568
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak.....		(389)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak		289
DOIKETAK GUZTIRA		48.468
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA (1)		33.306
EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA (2)		61
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (1+2)		33.367

D. DIRUZAINZA GELDIKINA		Eranskina Euroak milakotan
Funts likidoak.....		32.433
Aurrekontuko zordunak.....	B7.2	80.852
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	B11	157.543
Aurrekontuko hartzekodunak		(224.169)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	B11	(54.804)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2019.12.31-N		(8.145)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	B10	186.700
FINKATUTAKO DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 2018.12.31N		178.555

E. KONPROMISO KREDITUEN EGIKARITZA		Euroak milakotan						
KAPITULUA	Eranskina	2020	2021	2022 eta hurr.	GUZTIRA	FASEAK		
						Baimendua	Erabilia	
2.- Gastu arruntak ondasun eta zerbitz.	B4	2.927	1.407	739	5.073	4.255	3.983	
4.- Transf. eta dirul. arruntak	B5	16.566	3.551	1.893	22.010	19.372	19.231	
6.- Inbertsio errealak	B6	68.049	32.484	10.444	110.977	11.184	10.168	
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B5	25.073	3.770	1.500	30.343	18.392	18.391	
GUZTIRA		112.615	41.212	14.576	168.403	53.203	51.773	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

F. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	2019	2018		Eranskina	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		3.069.114	3.109.381	ONDARE GARBIA		2.796.341	2.750.916
Ibilgetu ukiezina.....	B6.2	32.328	28.936	Ekarritako ondarea.....		165.385	165.385
Ibilgetu materiala.....	B6.2	2.885.988	2.920.804	Aurreko ekitaldien emaitza		2.575.884	2.534.361
Ibilgetuko inbertsioak.....	B6.2	557	522	Ekitaldiko emaitza.....		45.702	41.523
Taldeko enpresetan partaid..	B9	117.386	118.652	Ondare hazkund. zerga gabe.....		9.370	9.647
Epe luzeko finantza inberts.	B7.2	32.855	40.467				
				PASIBO EZ-ARRUNTA		256.645	252.080
				Epe luzeko zorrak	B10	256.645	252.080
AKTIBO ARRUNTA		331.558	331.312	PASIBO ARRUNTA		347.686	437.697
Salgai dauden aktiboak.....		494	494	Epe motzeko hornidurak.....	B7.2	69.694	84.349
Kudeaketa eragik. zordun....	B7.2	141.088	174.078	Epe motzeko zorrak	B10	25.188	41.556
Beste zordun b.& kobr. knt. .	B11	157.543	136.121	Kudeaketa eragik. hartzekod.		224.169	284.427
Finan. inberts. epe motz.....	B11	-	2	Hartzed. eta ordain. bst knt b.	B11	28.635	27.365
Eskud. eta best. akt. baliok. .		32.433	20.617				
				ONDARE GARBIA ETA			
AKTIBOA, GUZTIRA		3.400.672	3.440.693	PASIBOA, GUZTIRA		3.400.672	3.440.693

G. 2019 eta 2018ko ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua

Euroak milakotan

	Eranskina	2019	2018
Zerga sarrerak.....		5.011.846	4.803.936
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....		136.891	154.987
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....		3.836	3.849
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		25.516	32.577
Hornidura gehiegizkoak.....		14.655	24.751
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		5.192.744	5.020.100
Langileen gastuak.....		(117.878)	(112.042)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak		(4.757.463)	(4.595.964)
Hornikuntzak.....		(1.509)	(1.429)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.		(176.544)	(178.820)
Ibilgetua amortizatzea.....	B6.2	(75.199)	(75.848)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(5.128.593)	(4.964.103)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		64.151	55.997
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktib. bestereng. emait.....		611	(7)
Arruntak ez diren beste partida batzuk		(19.579)	(25.650)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		45.183	30.340
Sarrera finantzarioak.....		31.886	31.474
Gastu finantzarioak.....		(2.337)	(2.937)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak		(29.030)	(17.354)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		519	11.183
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		45.702	41.523



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FORU ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

V.2.1 ULIAZPI FUNDAZIOA

A. 2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobran.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	2.062	-	2.062	2.313	2.105	208
2.- Transferentzia arruntak	16.995	-	16.995	16.645	16.645	-
5.- Ondare sarrerak	1	-	1	-	-	-
7.- Kapital transferentziak	460	-	460	460	460	-
8.- Pasibo finantzarioak	200	-	200	46	46	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	19.718	-	19.718	19.464	19.256	208

GASTUAK		Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Langileria gastuak	C1	14.206	-	14.206	13.763	13.098	665
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.		4.852	-	4.852	4.852	4.272	580
6.- Inbertsio errealak		460	-	460	458	213	245
8.- Pasibo finantzarioak		200	-	200	54	54	-
GASTUAK GUZTIRA		19.718	-	19.718	19.127	17.637	1.490

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak	238	(12)	(176)	50
Hartzekodunak	(1.667)	-	1.667	-
AURREKONTU ITXIAK		(12)		

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	19.464
-Obligazio aitortuak	(19.127)
EKITALDIAREN EMAITZA (1)	337
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(12)
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)	(12)
Doiketa finantzarioa (3)	1
AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)	326
DIRUZAINZTA GELDIKINA 18/12/31n	1.779
DIRUZAINZTA GELDIKINA 19/12/31n	2.105



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO abenduaren 31n			Euroak milakotan		
	19.12.31	18.12.31		19.12.31	18.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	14.361	14.461	ONDARE GARBIA	16.502	16.277
Ibilgetu ukiezina.....	184	92	Ondarea	5.835	5.835
Ibilgetu materiala	14.140	14.342	Sortutako ondarea	9.563	9.363
Finan. inberts. epe luzera	37	27	Egozteko dauden ondare gehikuntz.....	1.104	1.079
AKTIBO ARRUNTA	4.177	4.025	PASIBO ARRUNTA	2.036	2.209
Zordunak eta kobratz. beste knt. b.	203	200	Epe motzeko zorrak	34	17
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	35	37	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.	2.002	2.192
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	3.939	3.788			
AKTIBOA, GUZTIRA	18.538	18.486	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	18.538	18.486

E. 2019 eta 2018ko ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua		Euroak milakotan	
		2019	2018
Jasotako transf. eta dirulaguntzak		17.132	16.869
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak		2.241	2.073
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		73	41
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		19.446	18.983
Langileen gastuak		(13.763)	(13.508)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.		(4.852)	(4.586)
Ibilgetua amortizatzea.....		(620)	(598)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(19.235)	(18.692)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		211	291
Arruntak ez diren beste partida batzuk		-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		211	291
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak		(11)	(9)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		(11)	(9)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		200	282



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2.2 KABIA

A. 2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobran. Kobran.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	13.705	-	13.705	13.970	12.579	1.391
2.- Transferentzia arruntak	30.747	-	30.747	23.414	20.578	2.836
7.- Kapital transferentziak	1.155	-	1.155	687	687	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	45.607	-	45.607	38.071	33.844	4.227
GASTUAK	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain. Ordain.	Ordain. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Langileria gastuak	C1 8.222	-	8.222	5.595	5.577	18
2.- Gastu arruntak	36.134	-	36.134	30.532	27.108	3.424
4.- Transferentzia arruntak	96	-	96	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	1.155	-	1.155	609	497	112
GASTUAK GUZTIRA	45.607	-	45.607	36.736	33.182	3.554

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak	1.689	(6)	(1.655)	28
Hartzekodunak	(2.725)	-	2.725	0
AURREKONTU ITXIAK		(6)		

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	38.071
-Obligazio aitortuak	(36.736)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	1.335
EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA	(6)
DIRUZAINZA GELDIKINA 18/12/31n	2.140
DIRUZAINZA GELDIKINA 19/12/31n	3.469
Atxikitako finantzaketa-soberakina	(12)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31N	3.457
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	(23)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 19.12.31N	3.434

D. BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N Euroak milakotan

	19.12.31		18.12.31	
	19.12.31	18.12.31	19.12.31	18.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	981	468	ONDARE GARBIA	4.428
Ibilgetu ukiezina	112	92	AURREKO EKITALDIEN EMAITZA	2.592
Ibilgetu materiala	869	376	Ekitaldiko emaitza	1.836
AKTIBO ARRUNTA	7.505	5.107	PASIBO ARRUNTA	4.058
Zordunak eta kobratz. beste knt. b.	4.262	1.690	Epe motzeko zorrak	64
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	3.243	3.417	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.	3.994
AKTIBOAK, GUZTIRA	8.486	5.575	ONDARE GARBIA ETA PASIBOAK, GUZTIRA	8.486
				5.575



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. 2019 eta 2018ko ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua	Euroak milakotan	
	2019	2018
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	24.101	13.401
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	13.947	7.305
Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....	16	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	38.064	20.706
Langileen gastuak.....	(5.608)	(2.665)
Hornikuntzak.....	(339)	(184)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(30.180)	(16.251)
Ibilgetua amortizatzea.....	(96)	(49)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(36.223)	(19.149)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	1.841	1.557
KUDEAKETA EZ-ARRUNTAREN EMAITZA	(6)	-
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	1.835	1.557



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEEN KONTUAK

A. BALANTZEAK 2019 eta 2018ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	IZFE SA		BIDEGI SA		Etorlur G.L. SA	
		2019	2018	2019	2018	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		4.824	4.520	1.262.466	1.262.212	5.630	5.737
Ibilgetu ukierzina	D1	1.936	1.601	1.262.296	1.262.037	2	4
Ibilgetu materiala	D1	2.495	2.628	-	5	1.515	1.567
Ibilgetuko inbertsioak.....	D2	-	-	-	-	4.113	4.166
Taldeko enpresetan inbertsioak.....		174	174	-	-	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....		178	91	170	170	-	-
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		41	26	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		10.678	9.698	90.582	96.479	11.641	11.644
Izakinak	D2	9	10	-	-	10.430	10.406
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....		4.302	6.434	12.458	11.862	5	10
Epe motzeko finantza inbertsioak	D3	-	-	37.918	40.556	-	-
Aldizkatzeak epe motzera		227	392	-	-	11	5
Eskudirua eta bst. aktibo likido baliokide batz.		6.140	2.862	40.206	44.061	1.195	1.223
AKTIBOA, GUZTIRA		15.502	14.218	1.353.048	1.358.691	17.271	17.381
ONDARE GARBIA		5.825	5.578	591.849	532.936	15.452	15.466
Eskrituran jasotako kapitala.....	B9	439	439	20.719	20.719	21.604	21.604
Erreserbak.....		1.905	1.883	557.287	511.378	372	372
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		-	(24)	-	-	(7.550)	(7.558)
Ekitaldiko emaitza.....		94	46	55.874	45.909	3	8
Funts propioak		2.438	2.344	633.880	578.006	14.429	14.426
Balio aldaketagatiko doiketak	D4	-	-	(42.031)	(45.070)	-	-
Dirulag., dohaint. eta jasot. legat.		3.387	3.234	-	-	1.023	1.040
PASIBO EZ-ARRUNTA		1.672	1.623	697.517	740.593	694	727
Epe luzeko hornidurak	D1	-	-	21.845	27.748	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	D4	-	-	632.631	666.765	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak	D4	-	-	43.041	46.080	32	9
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....		1.064	1.015	-	-	323	365
Aldizkakotzeak epe luzera.....		608	608	-	-	339	353
PASIBO ARRUNTA		8.005	7.017	63.682	85.162	1.125	1.188
Epe motzeko hornidurak		-	50	-	-	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	D4	-	-	48.081	63.020	-	-
Epe motzeko bestel. zorrak.....		1.615	1.828	115	50	39	56
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz		6.146	4.884	15.486	22.092	1.072	1.118
Aldizkatzeak epe motzera		244	255	-	-	14	14
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		15.502	14.218	1.353.048	1.358.691	17.271	17.381



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2019 ETA 2018KO EKITALDIEN GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eranskina	IZFE SA		BIDEGI SA		Etorlur G.L. SA	
		2019	2018	2019	2018	2019	2018
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		27.038	26.217	145.253	141.042	-	94
Abiango sustap. eta eraik. izak. bariatz.		-	-	-	-	17	(76)
Aktiborako egindako lanak		-	-	9.601	8.424	-	-
Hornikuntzak.....	D6	(10.258)	(9.977)	-	-	(17)	(21)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....		37	30	-	-	920	909
Langileen gastuak.....	D5	(9.598)	(9.428)	(1.390)	(1.314)	(608)	(524)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	D6	(7.185)	(6.754)	(47.542)	(52.695)	(230)	(290)
Ibilgetua amortizatzea.....		(1.787)	(1.173)	(38.088)	(38.538)	(139)	(146)
Ibilgetu ez finantz. dirulag. egozteak		1.787	1.173	-	-	60	62
Gehiegizko hornidurak.....		44	-	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk		5	(49)	-	210	-	-
Ustiapenaren emaitza		83	39	67.834	57.129	3	8
Sarrera finantzarioak.....		-	-	-	-	-	-
Gastu finantzarioak.....	D4	-	-	(11.960)	(11.220)	-	-
Emaitza finantzarioa		-	-	(11.960)	(11.220)	-	-
Emaitza zerga aurretik		83	39	55.874	45.909	3	8
Etekinen gaineko zerga.....		11	7	-	-	-	(1)
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA		94	46	55.874	45.909	3	7
EKITALDIKO EMAITZA		94	46	55.874	45.909	3	7



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.4 FORU FUNDAZIOEN KONTUAK

A. LABURTUTAKO EGOERAREN BALANTZEAK 2019 eta 2018ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

Eranskina	Kiroigi		Sueskola		Adinberri		Klima Aldaketa		ZIUR		Mubil
	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AKTIBO EZ ARRUNTA	5	5	1.737	1.804	25	-	88	75	515	102	-
lbilgetu ukiezina.....	-	-	1.645	1.711	12	-	22	25	37	23	-
lbilgetu materiala.....	-	-	91	92	13	-	42	26	474	79	-
Finantza inbertsioak epe luzera	5	5	1	1	-	-	24	24	4	-	-
AKTIBO ARRUNTA	253	408	306	240	135	112	281	241	983	984	572
lzakinak	-	-	12	11	-	-	-	-	-	-	-
Erabiltz. eta jard. pr. bst. zordun batz.	-	24	260	214	-	-	-	-	-	-	-
Merkat. zord. eta kobratz bestel. knt.	167	170	7	8	-	-	196	-	866	-	142
Aldizkatzeak epe motzera	12	3	2	2	-	-	-	-	-	-	-
Eskud. & b. aktibo likido balioak. batz.	74	211	25	5	135	112	85	241	117	984	430
AKTIBOA, GUZTIRA	258	413	2.043	2.044	160	112	369	316	1.498	1.086	572
ONDARE GARBIA	139	139	1.739	1.807	88	83	156	272	1.418	956	572
Fundazioaren zuzkidura	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30
Erreserbak.....	598	598	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(489)	(489)	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiko emaitza.....	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Funts propioak	139	139	32	31	30	30	30	30	30	30	30
Dirulag., dohaint. eta jasot. legat.E1	-	-	1.707	1.776	58	53	126	242	1.388	926	542
PASIBO EZ-ARRUNTA	11	11	-	-	-	-	3	-	1	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak	11	11	-	-	-	-	3	-	1	-	-
PASIBO ARRUNTA	108	263	304	237	72	29	210	44	79	130	-
Epe motzeko hornidurak.....	72	106	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	-	-	-	60	-	-	-	-	-	-	-
Onuradunak eta hartzekodunak.....	10	26	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe motzeko zorrak	-	-	-	-	-	-	-	7	20	101	-
Merkat. hartz. & ordain. bestel. kntu.	26	131	304	177	72	29	210	37	59	29	-
ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZT.	258	413	2.043	2.044	160	112	369	316	1.498	1.086	572



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. EMAITZEN KONTU LABURTUA, 2019 eta 2018ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	Kiroldgi		Sueskola		Adinberri		Klima Aldaketa		ZIUR		Mubil
		2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Sustapen eta babesleen sarrerak.....		338	324	102	99	-	-	-	-	-	-	-
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak...	E1	3.018	2.578	166	168	1.018	69	553	143	345	70	27
Hornikuntzak		-	-	1	2	-	-	-	-	-	-	-
Merkat. jard. salmenta eta sarrerak.....		-	-	1.147	929	-	-	-	-	-	-	-
Jardueraren bst. sarr. b. eta zuzkid. soberak.		-	169	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Langileen gastuak	E.2	-	-	(675)	(641)	(253)	(23)	(214)	(16)	(221)	(42)	-
Laguntza monetarioengatikoko gastuak	E.3	(3.152)	(2.783)	-	-	(650)	-	-	-	-	-	-
Jardueraren beste gastu batzuk		(204)	(288)	(732)	(549)	(115)	(46)	(474)	(127)	(124)	(28)	(27)
Ibilgetua amortizatzea		-	-	(101)	(111)	(3)	-	(16)	-	(59)	-	-
Ekit. soberak. eskualdatutako kapital. dirulag.	E1	-	-	94	105	3	-	151	-	59	-	-
Jardueraren soberakina		-	-	2	2	-	-	-	-	-	-	-
Gastu finantzarioak		-	-	(1)	(2)	-	-	-	-	-	-	-
Eragiketa finantzarioen soberakina		-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Soberakina zerga aurretik		-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN SOBERAKINA		-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak		-	-	25	25	1.025	122	35	242	521	926	569
Ekitaldiaren soberakinera egindako birsailkapenak		-	-	(94)	(105)	(1.020)	(69)	(151)	-	(59)	-	(27)
Ondare garbian zuzenean egotzitako sarr. eta gastuen ondare garbiaren bar.		-	-	(69)	(80)	5	53	(116)	242	462	926	542
Fundazioaren zuzkiduran bariazioak		-	-	-	-	-	30	-	30	-	30	30
EKITALDIAN ONDARE GARBIAREN BAR.		-	-	(69)	(80)	5	83	(116)	272	462	956	572





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A. GIPIZKOAKO FORU-SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU BATERATUAK

A. 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO FINKATUA

Euroak milakotan

KAPITULUA	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak/Obligazioak
Zerga zuzenak	2.291.174	2.340.954
Zeharkako zergak	2.663.999	2.650.369
Tasak eta bestelako sarrerak	80.921	67.831
Transferentzia arruntak	122.597	127.164
Ondare-sarrerak	162.782	159.184
Inbertsio errealeen besterentzea	200	844
Kapitalezko transferentziak	5.090	9.855
Aktibo finantzarioen bariazioa	108.966	1.774
Pasibo finantzarioen bariazioa	-	60
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	5.435.729	5.358.035
Langileen gastuak	153.865	149.495
Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	243.701	213.916
Interesak	31.562	29.590
Transferentzia arruntak	4.666.925	4.665.824
Inbertsio errealak	138.824	128.912
Kapitalezko transferentziak	46.121	36.834
Aktibo finantzarioen bariazioa	3.624	1.148
Pasibo finantzarioen bariazioa	151.107	144.107
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	5.435.729	5.369.826
AURREKONTUAREN EMAITZA FINKATUA 2019		(11.791)

B. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	31.12.19	31.12.18	PASIBOA	31.12.19	31.12.18
AKTIBO EZ ARRUNTA	4.311.229	4.350.249	ONDARE GARBIA	3.386.190	3.278.546
Ibilgetu ukiezina	36.899	32.483	Ekarrirako ondarea	165.466	165.466
Ibilgetu materiala	4.167.918	4.202.573	Sortutako ondarea	3.253.385	3.143.470
Ibilgetuko inbertsioak	4.670	4.688	Estaldura eragiketak	(42.031)	(45.070)
Taldeko enpresetan partaidetza	68.597	69.864	Egozteko dauden ondare gehikuntza ..	9.370	14.680
Finantza inbertsioak epe luzera	33.104	40.616			
Geroratutako zergagatiko aktiboak ..	41	25	PASIBO EZ-ARRUNTA	956.543	995.036
			Epe luzeko hornidurak	21.845	27.748
			Epe luzeko zorrak	934.698	967.288
AKTIBO ARRUNTA	457.292	456.922	PASIBO ARRUNTA	425.788	533.589
Salgai dauden aktiboak	494	494	Epe motzeko hornidurak	69.766	84.506
Izakinak	10.451	10.426	Epe motzeko zorrak	75.156	104.865
Zordunak eta kobratz. beste knt. b. ..	319.920	327.445	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz. ..	280.608	343.949
Finantza inbertsioak epe laburrera	37.953	40.594	Aldizkatzeagatiko doikuntzak	258	269
Aldizkatzeagatiko doikuntzak	252	402			
Eskud. eta b. aktibo lik. baliok. batz. .	88.222	77.561			
AKTIBOA, GUZTIRA	4.768.521	4.807.171	PASIBOA, GUZTIRA	4.768.521	4.807.171



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. 2019 ETA 2018KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTU BATERATUA	Euroak milakotan	
	2019	2018
Zerga sarrerak.....	5.012.021	4.804.121
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	137.097	156.420
Salmenta garbiak, zerbitzu emakida, izakinen bariatz. eta ibilgeturako egindako lanak	170.527	159.155
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	35.206	41.202
Hornidura gehiegizkoak.....	20.601	24.750
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	5.375.452	5.185.648
Langileen gastuak.....	(150.208)	(140.203)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(4.711.084)	(4.561.400)
Hornikuntzak.....	(12.122)	(11.610)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(250.711)	(237.769)
Ibilgetua amortizatzea.....	(116.108)	(116.465)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(5.240.233)	(5.067.447)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	135.219	118.201
Ibilgetuaren emaitza	823	266
Ekitaldi itxien emaitza	(19.590)	(25.654)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	116.452	92.813
Sarrera finantzarioak.....	31.887	31.474
Gastu finantzarioak.....	(14.299)	(14.159)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(29.041)	(17.363)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(11.453)	(48)
Etekinen gaineko zerga.....	11	7
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	105.010	92.772



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

B.1 ALDERDI OROKORRAK

GFA lurralde izaerako administrazio publikoa da eta bere eskumenak azaroaren 25eko 27/1983 Legearen I. Tituluan, EAeko erakunde komunak eta bere lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoan, zehazten dira; eskumen horiek nagusiki dira Estatuarekin hitzartutako zergak kudeatzea eta eskumen eskusiboko edo beste erakunde batzuekin partekatutako zerbitzu jakin batzuk ematea: errepide sarea, sustapen ekonomikoa, gizarte ongizatea, nekazaritza, kultura eta ikuskapena eta zenbait alorretan tokiko sektoreari laguntza ematea.

GFAk bi erakunde autonomo, merkataritzako hiru foru sozietate eta sei foru fundazio ditu 2019ko abenduaren 31n, beste enpresa eta entitate batzuetan partaidetza gutxienekoak izateaz gain, B.9an zehazten den moduan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak 2019an indarreko arautegiak agintzen duen egitura eta informazioa barne hartzen du eta Gobernu Kontseiluak 2020ko urriaren 20an onetsi zuen, Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin betiko onetsi zain dagoela.

Ekitaldian zehar ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, 2019ko ekitaldirako GLHko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, GLHko dirulaguntzei buruzkoa.
- 8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, GLHko Ondareari buruzkoa.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, GLHko Zergei buruzkoa.
- 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, GLHko Zerga-bilketaren Erregelamenduari buruzkoa.

B.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2019ko urterako aurrekontu orokorrak abenduaren 21eko 7/2018 Foru Arau bidez onartu dira.

B.2.1 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2019ko ekitaldiko kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketen ondorioz:

	Euroak milakotan					
	Kreditu gehigarriak	Gaikuntzak	Kreditu txertaketak	Transf. eta egokitz. tekn.		Guztira
				Positiboak	Negatiboak	
Langileen gastuak	-	-	-	-	(2.611)	(2.611)
Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	-	443	-	4.499	(2.627)	2.315
Gastu finantzarioak.....	-	-	-	-	(3.981)	(3.981)
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	-	49.500	-	21.464	(15.727)	55.237
Kontingentzia funtsa eta bst ustegabeko b. ...	-	-	-	-	(100)	(100)
Inbertsio errealak	7.375	486	731	17.561	(17.271)	8.882
Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.....	-	27	6.293	6.291	(2.710)	9.901
Aktibo finantzarioak	6.498	-	-	300	(5.088)	1.710
Pasibo finantzarioak.....	46.920	-	-	-	-	46.920
GASTUAK GUZTIRA	60.793	50.456	7.024	50.115	(50.115)	118.273

Egin diren aurrekontu-aldaketetatik, guztira 118,3 milioi eurorenak, 67,8 milioi euro diruzaintzako geldikinaren kontura finantzatu dira, eta 50,5 milioi euro, berriz, diru-sarreraren gaikuntzekin.

Hona hemen kreditu gehigarriak zertarako erabili diren nagusiki:

- 46,9 milioi euroko zorraren aparteko amortizazioa, azaroaren 26ko 7/2019 Foru Arau bidez onartua.
- GHK SArI 6,5 milioi euroko mailegua ematea, 7/2018 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, zeinak ezartzen baitu 2019ko ekitaldian Ogasun eta Finantza Sailak epe luzeko maileguak eman ahal izango dizkiola erakundeari, sozietate horrek hiri-hondakin solidoen azpiegiturak finantzatzeko 2011n hitzartutako finantzaketa-eragiketak ordeztuz, eta ordezkapen hori finantza-erakundeek egiten badute, GFak abal bat edo beste berme batzuk eman ahal izango ditu, legez ezarritako mugen barruan. Eragiketa hau, baina, ez da gauzatu eta soberako kreditua konpromiso instituzionaletara transferitu da, batez ere.

Kreditu gaikuntzen destino nagusia erakunde-konpromisoen gastuetarako izan da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.2.2 KONPROMISO-KREDITUAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2019ko ekitaldiko konpromiso kredituen bariazioa xehakatu du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketan ondorioz:

	Hasierako aurrekontua	Gobernu Kontseilua	Euroak milakotan Transf. eta egokitz.teknik.		Guztira
			Positiboak	Negatiboak	
Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	2.220	2.853	43	(43)	5.073
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak.....	19.289	2.763	36	(78)	22.010
Inbertsio errealak	106.481	4.496	19.029	(19.029)	110.977
Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.....	30.292	9	592	(550)	30.343
GASTUAK GUZTIRA	158.282	10.121	19.700	(19.700)	168.403

GFAREN 168,4 milioiko konpromiso-kredituen azken aurrekontua baimendutako fasean % 31,6an gauzatu da; beraz, 115,2 milioi euro ez dira baimendu ere egin; hona hemen garrantzitsuenak:

- Ekitaldian lizitatu ez diren eta 42,5 milioi euroko konpromiso-kredituen aurrekontua zuten bide-azpiegituretako inbertsioak: Belabieta tunela: obrak eta obra-zuzendaritza, 16,2 eta 1,8 milioi euro, hurrenez hurren; GI-631 Azkoitia-Urretxu hobetzea, 10 milioi euro; Marrutxipi lotunea GI-20an, 8 milioi euro; GI-2132 konexioa, 6,5 milioi euro. Egoera bera planteatzen da Kultura Saileko eraikinen hobekuntzetarako, 10,1 milioi euroren konpromiso-kredituetan aurrekontuetaratuak eta lizitatu ez direnak.0}
- 2019ko ekitaldian lizitatu ez diren zerga-kudeaketako proiektuak, guztira 11,2 milioi eurorenak (ZERGA 2 zerga-plataforma berria, 8,8 milioi euro, eta Big Data, Zerga Informaziorako eta Iruzuraren aurkako Borrokarako Sistema, 2,4 milioi euro).
- Azpiegitura hidraulikoak finantzatzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin eta URAREkin sinatutako hitzarmenak, 9,2 eta 11 milioi eurokoak, hurrenez hurren. Hitzarmen horiek denbora-tarte batean lizitatuko diren obra ugari biltzen dituzte, eta, beraz, horietako batzuk ez daude hasita.
- Kapitalezko dirulaguntzak, gizarte-zerbitzuetako zentroak sortzeko, eraberritzeko eta haietan obrak egiteko, eta Matia Fundaziorako, 5 eta 2,7 milioi eurorenak, hurrenez hurren; diru-izendapen globalak dira, eta ez dagozkie banakako proiektuei.

B.3 LANGILEEN GASTUAK

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakaturako langile gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	GASTUA		Plantilla erreala 12-31n	
	2019	2018	2019	2018
Goi kargudunak.....	728	673	10	9
Behin-behineko langileak eta zuzendariak.....	4.478	4.225	73	67
Funtzionarioak.....	82.544	79.146	1.796	1.780
Lan kontratuko langile finkoak.....	1.486	1.546	(*)23	42
Aldi baterako lan kontr. langil.....	723	703	24	24
Ordainsariak eta plantilla	89.959	86.293	1.926	1.922
Gizarte Segurantzza.....	22.857	21.102		
Elkarkidetzak.....	1.556	1.528		
Klase Pasiboak.....	221	249		
Erretiro sariak.....	2.015	1.449		
Beste gizarte-zerbitzu batzuk.....	15	36		
Mediku-botika laguntza.....	64	47		
Aseguru pribatuak.....	489	498		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	1	4		
KAPITULUA GUZTIRA	117.177	111.206		

(*) Murrizketa, funtsean, 11 aldizkako langile finkori dagokie, 2019ko ekitaldian kontratua amaitzen zaielako.

Ordainsariak

2019ko martxoaren 5ean Aldundiko Gobernu Batzordeak GFaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak 2018koen aldean % 2,25 gehitzeko erabakia hartu zuen, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta 2019ko irailaren 3an % 0,25 gehiago igotzekoa, 2019ko uztailearen 1etik aurrerako ondorioekin.

Kalteordainak

2019ko ekitaldian GFAk 56 langileri guztira 2 milioi euroren sariak ordaindu dizkie (55i alde aurretiko erretiroagatik eta 1i uko egiteko pizgarriengatik), banako 40.000 euroren mugarekin, GFAko Giza Baliabideetako Plan Estrategikoari jarraikiz, eta errenta salbuetsi modura aitortu ditu.

2016ko ekitaldian egin zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren aldaketak agintzen du langilearen lanuzteagatik kalte-ordainak salbuetsitako errentatzat hartzeko, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetatik eratorritakoak, Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako kausaren bat izan behar dutela oinarri, zeinak kaleratze kolektiboa definitzen duen kausa ekonomiko, tekniko, antolaketazko edo ekoizpenekoetatik eratorritako modura. Giza Baliabideen Plan Estrategikoa GFAko langile guztiei aplikatzen zaie, erretirorako legezko adinari dagokionez

antzinatasunari eta adinari dagozkion betekizun jakin batzuk betetzen baditu; hori dela eta, ez dira kaleratze kolektiboarekin parekagarri diren kausak gertatu eta honenbestez, ez dira Foru Arauan errenta salbuetsizat jotzeko finkatutako baldintzak betetzen.

Plantilla

Hona hemen Lanpostu Zerrendaren, aurrekontuko plantillaren eta egiazko plantillaren egoera 2019ko ekitaldi itxieran:

	LZ	Aurrek. plantilla	Egiazko plantilla
Funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko eta aldizkako langileak	1.849	2.032	1.819
Behin-behineko langileak.....	40	34	39
	1.889	(*)2.066	1.858
Goi kargudunak eta zuzendariak	E/E	42	44
Aldi baterako lan kontr. langil.....	E/E	16	24
GUZTIRA		2.124	1.926

(*) Aurrekontuko plantilla modura barne hartu dira aldi baterako izaera duten kontratuak (azpimarratzeak dira: errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 99 kontratu, suhiltzaileak ordezkatzeko 20 kontratu eta Egogain egoitzarako 14 zaintzaile kontratu.)

2019ko ekitaldian LZ aldatu da eta 40 lanpostu gehitu dira; ez dira, baina, ekitaldian deitu eta honenbestez, ez du eraginik birjartze-tasan.

Foru Gobernuaren Batzordeak, 2018ko ekainaren 19an, Ogasuneko goi-mailako teknikari-lanposturako 35 plaza betetzeko hautaketa-prozesu bat onetsi zuen, 2017ko enplegu-eskaintza publikoari zegozkionak, eta 2019an egin zuen deialdia; izendapenen proposamena, berriz, 2020ko urtarrilaren 9an egin zen.

2018ko azaroaren 27an 2018ko enplegu-eskaintza publikoa onartu zen, zeinetan 217 lanpostutarako 35 deialdi barne hartzen baitira. 2019ko ekitaldian 114 lanpostutarako 14 deialdi egin dira eta hautaketa-prozesuak 2020an gauzatu dituzte.

2019ko uztailaren 23an 2019ko enplegu-eskaintza publikoa onartu zen, zeinetan 72 lanpostutarako 35 deialdi barne hartzen baitira. 2019ko abenduaren 31rako deialdi horietatik 33 lanpostutarako 5 deialdi egin dira guztira, zeinak ebazteke baitaude 2019ko abenduaren 31n.



B.4 GASTU ARRUNTAK ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak jarraian xehakatutakoak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZIOAK		D-O	Konpr.kred. D fasea
	2019	2018	2019	
Errentamenduak	2.741	1.009	145	2.400
Ibilgetua konpondu eta zaintzea	4.822	4.388	319	
Bulegoko materiala	359	261	3	-
Hornidurak	6.578	7.037	78	-
Komunikazioak	2.396	2.029	-	-
Garraioak	729	813	12	-
Aseguru primak	576	586	2	-
Zergak	572	617	-	-
Hainbat gastu	1.816	2.959	4	
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	477	615	-	-
<u>Kanpoko enpresek egindako lanak</u>				
Laguntza emateko zerbitzuak (*) (ikus B.5.2).....	62.783	60.582	-	-
Azterlanak eta irizpenak.....	6.870	7.919	88	238
Publizitatea eta propaganda.....	1.691	3.282	20	
Erakusketak eta lehiaketak	1.031	1.374	64	33
Informatika zerbitzuak	8.786	8.534	8	-
Eraikinak garbitzea.....	4.958	4.919	-	
Hondartzak garbitzea.....	1.236	1.169	-	1.077
Kontratu sozio-kulturalak eta kiroletakoak	8.186	7.806	41	-
Segurtasuna.....	1.811	1.537	-	-
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	6.849	7.635	380	235
Beste azpikontzeptu txikiago batzuk	3.881	2.512	41	
KAPITULUA GUZTIRA	129.148	127.583	1.205	3.983

(*) Laguntza-zerbitzuek eragindako gastuek 2019ko ekitaldian kapituluko gastu osoaren % 48,6 egin dute (% 47,5, 2018an).



B.5 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZA ARRUNTAK ETA KAPITALEZKOAK

Hona hemen kapitulu hauei dagokienez, ekitaldian aitortutako eta gauzatzeko dagoen erabilitako gastuaren xehakapena; baita, datozen ekitaldietarako erabilitako konpromisoak ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan					
	ARRUNTAK			KAPITALEZKOAK		
	Obligazioak	konpromiso K.		Obligazioak	konpromiso K.	
		D-O	D fasea		D-O	D fasea
Erakunde konpromisoak (ikus B.5.1)	4.305.047	-	-	-	-	-
Izendunak.....	(*)16.890	31	858	5.338	50	360
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	384	-	10	1.124	6.030	-
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	5.413	15	1.411	3.867	723	4.155
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	16.100	-	-	-	-	-
Etzerako laguntza zerbitzua	(**)8.192	-	-	-	-	-
Gipuzkoako toki entitateak	46.979	46	2.279	10.329	6.803	4.515
Izendunak.....	9.619	-	93	1.470	-	4.000
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	116	-	-	114	-	-
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	13.418	7	9.043	10.461	772	6.076
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	38.819	-	-	-	-	-
Enpresa pribatuak	61.972	7	9.136	12.045	772	10.076
Izendunak.....	18.646	-	962	3.120	-	990
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	1.242	10	-	84	-	-
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	14.440	22	6.297	10.947	23	2.810
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	89.068	-	-	-	-	-
Gizarte zerbitzuak.....	86.826	-	-	-	-	-
Irabazi asmorik gabeko famil. eta erak.	210.222	32	7.259	14.151	23	3.800
Uliazpi	16.645	-	-	460	-	-
Kabia	23.227	-	-	753	-	-
IZFE SA	-	-	-	1.989	-	-
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	745	-	-	-	-	-
Kirolgi Fundazioa	2.978	-	-	-	-	-
Sueskola Fundazioa.....	160	-	-	25	-	-
Adinberri Fundazioa.....	1.022	-	350	4	-	-
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa.....	553	-	-	35	-	-
ZIUR Fundazioa	498	-	-	325	-	-
MUBIL Fundazioa.....	519	-	-	80	-	-
Erak. auton. eta Foru Sekt. Publikoari transfer.	46.347	-	350	3.671	-	-
Txartel bakarra: Kalteordainak.....	28.955	5.381	-	-	-	-
Batzar Nagusiak	6.780	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza.....	1.350	-	-	-	-	-
Bestel. transferentziak eta dirulaguntzak.....	716	2	207	279	-	-
Bestel. transferentziak eta dirulaguntzak	37.801	5.383	207	279	-	-
KAPITULUA GUZTIRA	4.708.368	5.468	19.231	40.475	7.598	18.391

(*) Atal honetan barne hartzen da GFAk Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioari egindako 6 milioi euroren 2019ko ekitaldiko ekarpena; ez da konpromiso-krediturik erregistratu.

(**) 2019ko ekitaldian erregistraturiko gastuak ez du laugarren hiru hilekoa jasotzen, 2 milioi euroren zenbatekoduna, 2020ko aurrekontuan erregistratu dena.

B.5.1 ERAKUNDE KONPROMISOAK

Kontzeptu honen pean barne hartzen dira GFAk Kupo kontzeptuan Estatuari egiten dizkion ekarpenak, bere gain hartu gabeko karga eta sarreraren arteko aldeagatik, EAeko Administrazio Orokorrari aurrekontuak finantzatzeko ekarpen modura egiten dizkionak, eta udalei Udal Finantzaketarako Foru Funtz modura egindakoak. EAERI eta udalei egindako ekarpenak GFAk itunpeko zergen kontzeptuan egindako diru-bilketaren banaketa modura kalkulatu dira eta honenbestez, zenbatekoa diru-bilketa horri hertsiki loturik dago. Kupoaren zenbatekoa ez ezik, Administrazio Orokorrari egiten zaion ekarpena ere Autonomia Erkidego mailan zehazten dira.

ERAKUNDE-KONPROMISOAK	Euroak milakotan			
	GASTUA		SARRERA	
	2019	2018	2019	2018
Ekitaldiko Kupoa	305.825	310.856	-	-
Aurreko ekitaldiko kupoa likidatzea	8.680	4.778	-	-
ESTATUARI KUPOA	314.505	315.634	-	-
Ekarpen orokorra.....	3.199.307	3.108.608	-	-
Ertzaintza	13.473	12.695	-	-
Eskumen berriak.....	231.650	196.843	-	-
Doiketa funts orokorra (ikus B.8)	13.685	13.297	73.456	98.701
Aparteko funtsa (ikus B.8)	929	-	3.078	-
EAE-RI EKARPENAK	3.459.044	3.331.443	76.534	98.701
Udal Finantzaketarako Foru Funtza	529.508	514.574	-	-
UDALEI EKARPENAK	529.508	514.574	-	-
Gizarte Zerbitzuen Funtza (ikus B.8).....	1.990	1.989	4.121	4.118
FPEBtik eratorritako beste gastu eta sarrera batzuk(*)	1.990	1.989	4.121	4.118
ERAKUNDE-KONPROMISOAK GUZTIRA	4.305.047	4.163.640	80.655	102.819

(*) Finantzaren Análisisan gastu arrunten idazpuruaren barruan jaso da.

Estatuari Kupoa

Abenduaren 28ko 11/2017 Legeak arautzen du Kupoa, 2017-2021 bosturtekorako Euskadiko Kupoa kalkulatzeko metodologia onartzen duenak.

GFAk gastu modura erregistratu ditu 2019ko ekitaldian Eusko Jaurlaritzak jakinarazitako zenbatekoak, Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren maiatz, irail eta abenduko epeei dagozkienak; horiek guztiek 305,8 milioi euro egin dituzte guztira; 2018ko ekitaldiko Kupoaren likidazioa ere erregistratu du, 8,7 milioi euroren zenbatekoarekin. 2020ko maiatzean 2018 eta 2019ko ekitaldietako behin betiko kupoa kitatu da eta GFAk 17,3 milioi euroren ordaintzeko saldoa du, 2020an gastu modura erregistratu dena.

Euskal Autonomia Erkidegoari finantza ekarpenak

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak arautzen du, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak



zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak; indarraldia iraungi ostean eta aipatutako Legearen azken xedapenari jarraikiz, zuzenean luzatu da.

EAEri egin beharreko ekarpenak, zergen diru-bilketa abiaburu hartuta, bi banaketa-molderen arabera zehazten dira:

- Banaketa bertikalaren eredua: EAEko hiru lurralde historikoetako Ogasun Nagusiek jaso beharreko kopurua finkatzen du, euren gain hartutako eskumenen arabera (% 70,04) eta ekarpen orokorra deitzen zaio.
- Banaketa horizontalaren eredua: aurreko atalean adierazitako ekarpen orokorra behin finkatu ondoren, ekarri beharreko koefizientea bereizten da, zeina lurralde bakoitzaren errentarekiko (% 70) eta ahalegin fiskalarekiko (% 30) modu proportzionalen zehazten baita. Ekitaldian aplikatu diren ehunekoak izan dira: % 16,38 Arabarentzat, % 50,41 Bizkaiarentzat eta % 33,21 Gipuzkoarentzat.

2019ko ekitaldiko Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen likidazioak, FPEBk 2020ko otsailean egindakoak, Doiketa Funts Orokorraren likidazioa eragin du, GFarentzak kobratzeko 73,5 milioi euroren zenbatekoa eman duena, 2019ko ekitaldiko sarrerren aurrekontuan erregistratu direnak; Aldundiak 13,7 milioi euroren ekarpena egin du. Gainera, FPEKak Aparteko Funts bat onartu zuen 2019rako, non Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek guztira 5,6 milioi euroren ekarpena egin baitute (GFAK 929.351 euro eman zituen) Arabako eta Gipuzkoako aldundien artean banatzeko, hurrenez hurren 2,5 eta 3,1 milioi euro bakoitzari.

FPEKak, 2018ko urriaren 11n, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Funtsa osatzea adostu zuen, ekitaldian 20 milioi euro izango zituena, prestazioen eta gizarte-zerbitzuen garapenerako jarduketan finantzaketara zuzendua. Funts horretarako ekarpen finantzarioak Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei dagozkie, haien koefiziente bertikal eta horizontalekin proportzioan; GFarentzat, guztira 2 milioi euro izango dira. Eusko Jaurlaritzaren eskutik 3,3 milioi euro jasoko ditu, eta, Gipuzkoako udalen eskutik, 799.957 euro.

Udal Finantzaketarako Foru Funtsa

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, indarraldiaren ostean eta aipatu Legearen azken xedapenari jarraikiz zuzenean luzatu denak, laugarren xedapen gehigarrian gomendatzen du toki entitateek itunpeko sarreretatik eratorritako baliabideen % 54,7ko gutxieneko partaidetza izatea.

GFAn azaroaren 23ko 15/1994 FAK, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa arautzen duenak agintzen du udalerriek itunpeko zergen kontzeptuko sarreretan izango duten partaidetza kalkulatzeko ehunekoak % 58koa izango dela.

2019ko ekitaldian Udal Finantzaketarako Foru Funtsera egindako ekarpenak 517,9 milioi eurorenak izan dira eta Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 14an onartutako

likidazioaren ondorioz, udalei 11,6 milioi euroren zenbatekoa ordaindu behar zaie; honenbestez, 2019ko ekitaldiko gastua guztira 529,5 milioi eurorena izan da.

B.5.2 LAGUNTZA-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKAKO HITZARMENAK

GFAk 2019ko ekitaldian gizarte zerbitzuetan egindako gastua, gastu orokorrak barne hartu gabe, era honetara zati-banatzen da:

- Laguntza-zerbitzuak, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa” kapituluaren erregistratuak 62,8 milioi euroren zenbatekoan. Egindako gastua ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren araudiak arautzen du eta GFAREN jabetzako zentroetan emandako zerbitzuei dagokie (ikus B.4).
- Gizarte zerbitzuetako hitzarmenak eta kontratu-programak, “Transferentzia arruntak” kapituluaren erregistratuak, 144 milioi euroren zenbatekoan. Gastua GFAREN besteko zentroetan egindako zerbitzualdiari dagokio.

Hona hemen hitzarmen eta kontratu-programako gastuaren xehakapena itunpeko jardueraren eta jardura zerbitzu-emaiaren arabera berezia:

	GUZTIRA	Euroak milakotan		
		Toki entitateak	Enpresa pribatuak	Irabazi asm. gabeko erak.
Adinekoen egoitzak.....	47.834	7.078	19.911	20.845
Egoitzetako unitate psikogeriatrikoak	8.074	787	3.857	3.430
Egoitzetako defizitaren estaldura.....	1.317	1.317	-	-
Adinekoen egoitzak	57.225	9.182	23.768	24.275
Desgaituei arreta eta zaintza.....	28.994	99	2.424	26.471
Buru-nahastea dutenen egoitzak eta eguneko zentroak	8.640	-	2.695	5.945
Etxean bizi programa pilotua	105	105	-	-
Desgaitasuna	37.739	204	5.119	32.416
Sendian, atsedeneko egoitzak eta asteburuko egonaldiak	898	36	741	121
Adinekoen eguneko zentroak	16.389	6.678	5.598	4.113
Adinekoei arreta sozio-sanitarioa eta zaintza	3.011	-	-	3.011
Gizarteratzea (ostatu ematea, progr. eta egun. zentr.)	15.867	-	-	15.867
Adingabeen zaintzarako zentroekiko hitzarmena	12.858	-	3.593	9.265
GIZARTE ETA LAGUNTZA PRESTAZIOAK GUZTIRA	143.987	16.100	38.819	89.068

2019ko ekitaldian aplikatutako prezioen berrikuspenak Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartzen ditu eta langile kostuen igoeratik eratorritako ondorio ekonomikoak bideratzeko helburua dute, GFAk proposaturik enpresarien elkarte eta erakunde sindikalen artean lortutako enpresa-hitzarmen berriak ezartzearen ondorioz; era honetara, baliabideak kudeatzen dituzten enpresen egonkortasun ekonomikoa bermatzen da. Honako hauek dira onartutako igoerak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan	
	% igoera	Zenb.
Mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden zaharrentzako kontratuak	3,6	952
Babesgabe, gizarte-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatzeko kontratuak	1,1	131
Mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden adinekoentzako hitzarm. eta kontratu-program.	3,6	4.356
Babesgabe, gizarte-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatzeko kontratuak	1,1	380
Ezintasuna duten pertsonentzako hitzarmenak eta kontratu-programak	1,1	321
GUZTIRA		6.140

B.5.3 ERREPIDEKO BIDAIARIEN GARRAIOA

Bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzua emateko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuei dagokienez, bidaiariak errepidez garraiatzeko Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta konexioen emakidari buruzko informazioa nabarmendu behar dugu: 2018ko abuztuan, emakidaren lizitazioa argitaratu zen EBAOn, 211,4 milioi euroren balio zenbatetsiarekin eta 10 urteko eperako, eta esleipena 2020ko uztailean egin zen; esleipena, baina, ez da irmoa, harik eta lizitatzailerak batek aurkeztutako errekurtsioa ebatzen ez den bitartean. Beraz, kontratuak 2012an iraungi zitzaizkien enpresek jarraitzen dute zerbitzua ematen 2019ko ekitaldian, izan ere 2014ko eta 2015eko ekitaldietan abiarazi ziren lizitazio-prozedurak, hainbat errekurtsio eta epairen ondoren, ezin izan ziren heldu zerbitzuaren esleipen-fasera. 2019ko ekitaldiko gastua 5,2 milioi euro izan da.

B.5.4 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA

Hona hemen Enpresa-sektore Publikoaren ibilgetu ukiezinaren eta ibilgetu materialaren kontuek 2019ko ekitaldian izandako mugimenduaren barne xehakapena:

IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA			Euroak milakotan	
	Saldoa	Altak	Amort. zuzkidura	Saldoa
SOZIETATEA	18.12.31			19.12.31
IZFE SA	4.229	1.989	(1.787)	4.431
Bidegi SA.....	1.262.042	38.342	(38.088)	1.262.296
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	1.571	15	(69)	1.517

Ekitaldiko ibilgetuko alta esanguratsuenak Bidegi SArenek dira; hona hemen:

	Euroak milakotan
INBERTSIOA	2019
Emakida erabakiaren interesak abiaraztea (ikus D.4).....	15.292
GI-632 Antzuola-Bergara.....	11.371
GI-632 lanak Urretxu-Legazpia-Antzuola	203
N-1 eta A-15eko azpiegiturak kobratzeko sistema	3.465
Aritzetako aparkalekua.....	1.067
Irun AP-8ko lotune partziala	4.870
Garraioaren Zentro Integrala AP-8 Astigarraga	1.044
Beste txikiago batzuk	1.030
GUZTIRA	38.342

Sozietateak finantza gastuen 15,3 milioi euroren zenbatekoa kapitalizatu du eta etorkizunean berreskuratuko direlako ebidentzia dago Sozietatearen Ekonomia eta Finantza Planari jarraikiz, abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren bigarren arauaren 3. atalean agindutakoa oinarri hartuta, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakidadun diren enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena. Hori aurreko ekitaldietan kapitalizatutako 229,5 milioi euroei gehitzen badiegu, ibilgetu ukiezinaren finantza aktibazioko idazpuruak 2019ko ekitaldi itxieran 244,8 milioi euroren saldoa metatzea eragin du.

Bidegi SAK 2019ko ekitaldi itxieran ibilgetu ukiezinan zituen inbertsio-konpromisoak 12,1 milioi eurorenak dira.

Bidegi SArenek Balantzeko epe luze horidura-kontuak 21,8 milioi euroren saldoa du 2019ko abenduaren 31n eta emakida aldiaren amaieran azpiegitura GFARI itzultzeko beharrezko diren jardueri aurre egiteko zuzkidurari dagokio; aldi horretan egin beharreko inbertsioekin lotua dago.

D.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK ETA IZAKINAK

Higiezinetan inbertsioak dituen sozietate bakarra Etorlur Gipuzkoako Lurra SA da; hona hemen inbertsioen xehakapena:

ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK	Euroak milakotan			
	Kostua	Amortizazio metatua	Narriadura Balioa	Balio garbia
Etxebizitza 1 Beizaman.....	201	(27)	-	174
Orbegozo bulegoen eraikina Hernanin	3.842	(600)	-	3.242
Landareko lursailak	4.248	-	(3.552)	696
Erratzuko poligonoko gainerako lursaila	1	-	-	1
GUZTIRA	8.292	(627)	(3.552)	4.113

2019ko ekitaldiko errentamenduarekin lotutako diru-sarrerak 165.828 euro izan dira.

Foru sozietateen izakinetan Etorlur Gipuzkoako Lurra SAri dagozkionak gailentzen dira; hona hemen xehakapena:

IZAKINAK	Euroak milakotan	
	19.12.31	18.12.31
Intsaustiko lursailak eta eraikinak	6.122	6.115
Lursail eta eraikinen narriadura	(2.312)	(2.312)
Ibaiondo Florida sustapena Hernanin	29.179	29.162
Ibaiondo Florida sustapenaren narriadura	(23.033)	(23.033)
Azpeitia-Nuarbe sustapena	556	556
Azpeitia-Nuarbe sustapenaren narriadura	(82)	(82)
GUZTIRA	10.430	10.406

Intsaustiko lursail eta eraikinak GFAk ekarritako higiezinak dira, 2008ko ekitaldian egindako kapital-zabalkuntza baten ordainketa modura. Eremu horretan etorkizunean egin asmo den sustapenaren gaineko egungo zehaztugabetasunak eta higiezin honen gaineko arrazoizko balioaren gainean aditu independenteen balorazio ezak eragozten du 3,8 milioi euroren zenbatekoarekin erregistratu den kontularitzako balio garbiaren zuzentasuna egiaztatzea.



D.3 EPE MOTZEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Egoeraren Balantzeko idazpuru honetan azpimarratzekoa da Bidegi SAREN saldoa, 37,9 milioi euro. Kopuru honetatik 37,3 milioi euro bi diru-ezarpeni dagozkie, honako xehakapen honekin:

- 27,3 milioi euroren diru-ezarpena, sei hilabeteko epean mailegu sindikatuaren interesen eta amortizazioaren ordainketei aurre egiteko, maileguaren polizak agintzen duen moduan.
- 10 milioi euroren diru-ezarpena, sozietateak aparteko konponketetarako erreserba modura eratu duena.

D.4 ZORPETZEA ETA FINANTZA GASTUAK

Zorpetzea duen sozietate bakarra Bidegi SA da.

Euroak milakotan							
ENTITATEA	% interes nominala	Saldoa 18.12.31n	Mug.2019	Saldoa 19.12.31n	Zorra epe luz.	Zorra epe motz.	Epemuga
IEB	% 4,306	60.833	(6.800)	54.033	47.233	6.800	2027
IEB	% 4,328	25.800	(2.867)	22.933	20.066	2.867	2027
IEB	% 3,658	70.364	(7.819)	62.545	54.727	7.818	2027
IEB	HE+0,491	26.666	(2.666)	24.000	21.333	2.667	2028
IEB	HE+0,512	45.000	(3.000)	42.000	39.000	3.000	2033
IEB	% 4,364	80.000	(5.000)	75.000	70.000	5.000	2034
IEB	% 4,375	80.000	(5.000)	75.000	70.000	5.000	2034
Banku sindikatzea	(a) SE+1,525	333.574	(15.320)	318.254	310.272	7.982	2032
ZORPETZEA, GUZTIRA		722.237	(48.472)	673.765	632.631	41.134	

(a): % 80 swap bidez dago estalia, % 4,03koarekin gehi 1,525.

HE: Hiruhileko Euriborra

SE: Seihileko Euriborra

2019ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzean duen isla honakoa da:

Euroak milakotan			
EGOERAREN BALANTZEA	Zorrak epe motzera	Zorrak epe luzera	GUZTIRA
Maileguak	41.134	632.631	673.765
Zorpetutako interes iraungi gabeak	6.947	-	6.947
Kreditu erakundeekiko zorrak guztira	48.081	632.631	680.712
Finantza deribatuetan	-	43.041	43.041
Epe luzeko bestelako zorrak guztira	-	43.041	43.041

- Bidegi SAK interes tipoaren gaineko swap finantzarioak baliatzen ditu banku sindikazioaren maileguan interes tipoaren fluktuazioen aurrean duen arriskua kudeatzeko.



Eragiketa hauekin lotutako Ondare Garbiaren eta Egoeraren Balantzeko Pasiboaren kontuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
EGOERAREN BALANTZEA	2019	2018	Bariazioa
Balio aldaketagatiko doiketak	(42.031)	(45.070)	3.039
Finantza deribatuak	43.041	46.080	(3.039)
GUZTIRA	1.010	1.010	-

- Europako Inbertsioen Bankuko maileguez GFAREN abala dute eta 2019ko ekitaldi itxieran 355,5 milioi euroren ordaintzeko saldoa dute (ikus B.10).

Bidegi SAREN finantza gastuak 2019ko ekitaldian honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
	Emaitzetara egotziak	Kapitalizatuak	GUZTIRA
Maileguengatiko finantza gastuak	7.475	9.558	17.033
Swapengatiko finantza gastuak	4.485	5.734	10.219
GUZTIRA	11.960	15.292	27.252

D.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen merkataritzako foru sozietateen 2019ko ekitaldi itxieran Langile gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

	Euroak milakotan					
SOZietatea	Langileen gastuak		Plantilla guztira		Goi zuzendaritza	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
IZFE SA	9.598	9.428	(*)163	154	1	1
BIDEGI SA	1.390	1.314	(**)21	20	2	2
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA	608	524	8	9	1	1

(*) 2019/12/31n 17 langilek lanaldi partzialeko kontratuak zituzten, % 25ekoak (txandakako kontratuak); (2018an 17 langile ziren).

(**) Izendapen askeko 2 lanpostu barne hartzen dira, goi zuzendaritzako 2 lanpostuz gainera.

2019ko ekitaldiko ordainsari igoera % 2,25ekoa izan da urtarrilaren 1etik aurrera eta % 0,25 gehiago uztailearen 1etik aurrera.

D.6 HORNIDURAK ETA USTIAPENeko BESTELAKO GASTUAK

Saldo esanguratsuak dituzten merkataritzako bi sozietateentzat Enpresa-sektore Publikoaren 2019ko ekitaldiko “Hornidurak” eta “Beste ustiapen gastu batzuen” xehakapena honakoa da:

SOZIETATEA	Euroak milakotan	
	IZFE SA	BIDEGI SA
Salgaien kontsumoa	50	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	10.208	-
HORNIKUNTZAK	10.258	-
Errentamenduak	69	8
Aplikazioak, makineria eta ekipoen mantentze-lana.....	4.549	-
Konponketak eta zaintza	-	11.482
Profesional independenteen zerbitzuak.....	604	326
Telefonia eta teleprozesua	393	-
Banku zerbitzuak.....	-	1.247
Hornidurak	102	162
Kudeaket. bst gastu arrunt batz: A-8 eta AP-1-en mant.-lana eta ustiapena ..	-	35.963
Kudeaket. bst gastu arrunt batzuk: Trafiko handiko sarearen mant.-lanak	-	1.241
Kudeaket. bst gastu arrunt batzuk: GFAk egindako zaintza	-	2.778
Merkataritzako eragiketengatik zuzkiduren galerak, narriad. eta bariazioa.....	-	(5.903)
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	1.468	238
USTIAPENeko BESTE GASTU BATZUK	7.185	47.542

D.7 BESTELAKOAK

BIDEGI, SAK 10,9 eta 10,2 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen 2018ko eta 2019ko ekitaldietan, hurrenez hurren, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat GLHko A-15 eta N-1 edukiera handiko errepideen zati jakin batzuk erabiltzeko kanona arautzen duten 7/2016 eta 6/2018 Foru Arauak aplikatuz. Arau horien aurka administrazioko auzi errekurtsok aurkeztu ziren EAEJANen aurrean, zeinak, 2018ko apirilaren 9ko eta 2020ko maiatzaren 5eko epaien bidez, zuzenbidearen aurkakoak izendatu eta baliogabetu egin baitzituen arauak; GFAk kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean. 2019ko abenduaren 31n Urteko Kontuak mamitu zirenean, zalantzazko egoera bat zegoen eta ez zen horren berri eman kontuetan.

Auzitegi Gorenak 2021eko otsailaren 16an adierazi du ez dela bidezkoa 7/2016 Foru Arauaren aurka jarritako kasazio-errekurtsua. Ezin izan da kuantifikatu deuseztapen horrek BIDEGI SAK Foru Arau horren babespean aitortutako diru-sarreretan izan dezakeen eragina eta, ondorioz, 2019ko abenduaren 31n Sozietatearen Ondare Garbian izan dezakeen eragina.

Berebat, txosten hau idatzi dugun datan, BIDEGI SA sozietateak 6/2018 Foru Arauaren babespean aitortutako diru-sarrerari buruzko ziurgabetasunak bere horretan dirau.

7/2016 Foru Arauak onetsitako kanona kobratzen jarraitu dute 2019ko maiatzera arte: orduan hasi ziren aplikatzen aurrekoa indargabetzen duen kanon berria, 6/2018 Foru Arauak araututakoa.



D.8 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2019AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Mota	Esleip. moldea	Esleip. zenb.	Egikar. 2019
IZFE SA				
Hardware, software azpieg. eta HOST ingurunekeo mant.-lan eta eusk. (3 urte).....	Hornidura	PGPN	10.796	-
Sendaudit tresna erostea (3 urte)	Zerbitzuak	PGPN	1.295	211
HOST eragiketa eta sistemen arloko laguntza-zerbitzua (2 urte)	Zerbitzuak	PIH	460	-
Hornidura-plataforma hiperkonbergentea handitzea.....	Hornidura	PIE	254	254
Microsoften lizentziak (3 urte).....	Hornidura	PIH	234	233
Gipuzkoa-Datuak sarea: Internet 2020-2021 (2 urte).....	Zerbitzuak	PIH	208	-
BIDEGI SA				
AP-8 autopistan Irungo lotune berriaren proiektu xehakaturia.....	Obrak	PIH	8.133	4.979
Aldatua 1			160	
Astigarragako AP-8an Garraioaren Zentro Integralerako Proiektua	Obrak	PIH	(*)6.832	53
Astiko (Zarautz) zubibidea birgaitzeko eraikuntza-proiektua.....	Obrak	PI	5.366	338
Bidegiko errepide-sareko ezpondak arintzeko eraikuntza-proiektua.....	Obrak	PI	2.393	456
Arrasaten dagoen Osinalde II betelarenaren gainean dauden metaketak induskatzea	Obrak	PI	1.184	1.251
Irungo lotune partzial berrirako sistemen proiektua	Obrak	PI	950	-
N-I zoruaren egit. errehab., Irun-Gasteiz 406,000-0,735 eta 408,000-0,405 km artean ..	Obrak	PI	876	778
Gipuzk. Deskontuak Planari atxikitako bezeroen TAG gailuaren emisioa eta operat. (4 urte)	Zerbitzuak	PIH	1.045	-
Astigarragan AP-8an Garraio Zentro Integralaren exekuzio-proiektuaren obra-zuzendaritza	Zerbitzuak	PIH	962	152
AP-8 autobidean Irungo lotune berriaren proiektu xehakaturaren obra-zuzendaritza	Zerbitzuak	PIH	459	358
Espediente aldatua.....			51	
AP1,8 eta GI-20,632 Erag., Eraik. eta mant. kontrat. kudeak. tekn.-ekon. aholk.tek. (4 urte)	Zerbitzuak	PIH	394	22

(*) BEZik gabeko kopurua subjektu pasiboaren inbertsioa duelako.

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenb.	EGIKARITZA			Egoera
			18/12/31	2019	19/12/31	
IZFE SA						
Lag. tekn., aholkular. eta garapen inform. zerb. esparru-akordioa (4 urte)	2015	a.p.	25.286	10.148	35.434	Abian
Microsoften lizentzia (4 urte)	2016	608	565	53	618	Amaituta
Host ingurune eta ingurune banatuko makinak, progr. eta zerb. (3 urte)..	2016	10.337	7.159	3.099	10.258	Amaituta
GFAREN eta IZFEREN egoitzen artean fibra optiko bidezko lotura (4 urte) ...	2016	599	296	149	445	Abian
VPS multzoko produktuen lizentziak euskarritu eta mantentzea (3 urte)...	2017	192	126	64	190	Abian
KONTUA zergabilketaren kudeaketa integraleko informatika sistema.....	2017	4.368	1.076	436	1.512	Abian
Kolor. inprim. digital aurr. zerb. eta makinak, lizentz. eta bst horn. (4 urte)	2017	599	222	49	271	Abian
HDIV Enterprise License Agreement	2018	229	-	76	76	Abian
Biltegitratze azpistema mantentzea.....	2018	208	-	207	207	Amaituta



AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenb.	EXEKUZIOA			Egoera
			18/12/31	2019	19/12/31	
BIDEGI SA						
Deskontu Planaren erabiltzaileentzako Tag gailua (4 urte eta luzapen 1) ..	2014	1.220	1.273	206	1.479	Abian
Aldatua 1	2015	54				
GI-632 Antzuola-Bergara bide-zatikoi saihesbideko lanak bukatzea	2016	(*41.724	35.967	10.891	46.858	Amaituta
Aldatua 1	2018	2.019				
GLH goi mailako sareko azpieg. kobr. sistem. proi.,obra, manten.....	2016	19.293	15.175	7.686	22.861	Abian
Aldatua 1	2017	364				
Epediente aldatuak 2,3 eta 4.....	2018	4.581				
GI-632 lanak amaitzeko proiekt. obra zuzend.. Zatia: Antzuola-Bergara	2017	1.959	1.587	574	2.161	Amaituta
Aldatua 1	2019	188				
Aldizk. azterk. geotekn. lanak eta ezponda-arriskua kudeatz. gailua jartz.	2017	1.176	267	296	563	Abian
Zorua egokitzea AP-8 eta AP-1 autobideetako hainbat zatitan	2018	6.384	2.036	3.730	5.766	Abian
AP-8, GI-20 eta AP-1en ustiapena, mantentze-lanak eta zaintza (8 urte) ..	2018	348.119	23.571	39.888	63.459	Abian
BIDEGI SAren webgunea mantentzea eta garatzea (4 urte)	2018	131	66	29	95	Abian
Segurtasuneko eta tunelak gainbegiratzeko arduraduna (2 urte).....	2018	466	126	200	326	Abian
Aritzetako aparkalekuaren proiektua idaztea eta obra gauzatzea	2018	1.555	738	972	1.710	Amaituta

a.p. Aleko prezioetan esleitu

(*) BEZik gabeko kopurua subjektu pasiboaren inbertsioa duelako.

E. FORU FUNDAZIOAK

E.1 DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen foru-fundazioen dirulaguntzek eragindako diru-sarrerak eta GFaren transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien gastuekin duten korrespondentzia:

	Euroak milakotan					
	Kirolgi	Sueskola	Adinberri	Klima aldak.	ZIUR	MUBIL
FUNDAZIOAREN EMAITZEN KONTUA						
Jasotako dirulag., dohaintz. eta legat.	3.018	166	1.018	553	345	27
GFak 2018an erregistraturiko dirulaguntza.....	(40)	-	-	-	-	-
Balantzean erreg. gastu arrun. dirulag.,		-	4	-	178	492
GFaren transferentzia arruntak	2.978	160	1.022	553	498	519
Beste ente batzuetatik jasotako dirulag.	-	6	-	-	25	-
FUNDAZIOAREN EGOERAREN BALANTZEA						
2018ko abenduaren 31n jasotako dirulag.	-	1.776	53	242	926	-
GFatik 2019an jasotako kapit. dirulag.	-	25	4	35	325	50
Bst. entit. batz. 2019an jasotako kapit. dirulag.	-	-	-	-	18	-
2019ko emaitzen kontura egozte.....	-	(94)	(3)	(151)	(59)	-
GFak emandako dirulag. arruntak		-	4	-	178	492
2019ko abenduaren 31n jasotako dirulag.	-	1.707	58	126	1.388	542

Ziur eta Mubil fundazioetan, Egoeraren balantzeko "Jasotako dirulaguntzak" kontuan 178.361 eta 492.067 euro erregistratu dira, hurrenez hurren. Horien jatorria GFak eragiketa arruntetarako egindako transferentziak dira. Kopuru hau egindako gastu arrunten aldean jasotako soberako dirulaguntzari dagokio.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E.2 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen foru fundazioetako langileen gastuak eta ekitaldi itxierako plantilla osoa, goi-kargudunak barne (Kirolgi Fundazioak ez du langilerik eta Mubil Fundazioa 2019ko ekitaldian sortu zen eta ekitaldi horretan ere ez zuen langilerik):

FUNDAZIOA	Euroak milakotan					
	Langileen gastuak		Plantilla guztira		Goi kargudunak	
	2019	2018	2019	2018	2019	2018
Sueskola	675	641	12	12	-	-
Adinberri	253	23	4	1	1	1
Klima-aldaketa.....	214	16	3	1	-	1
Ziur.....	221	42	5	1	1	1

Sueskola Fundazioaren 2019ko ekitaldiko ordainsari-igoera % 1,75 izan da 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, izan ere onarpena aurrekontua onartzen den unean egiten da, gerora gaurkotu gabe. Gainerako fundazioek GFaren ordainsari igoera bera aplikatu dute, % 2,25 2019ko urtarrilaren 1az geroztik eta % 2,25 osagarria, 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

E.3 MONETA-LAGUNTZAK

Kirolgi Fundazioak bi jarduera-lerro garatzen ditu, Patronatuak 2019ko ekitaldian onartutakoak, eta guztira 3,2 milioi euroren gastua izan dutenak:

- 2019an kategoria gorenetan lehiatzen diharduten taldeak dituzten Gipuzkoako klubei laguntza-lerroa, guztira 2,6 milioi euroren gastuarekin. Laguntza hauek jaso dituzten klubak 23 izan dira eta talde onuradunak, berriz, 33.
- Banaka eta taldean parte hartzeko modalitateetan diharduten kirolariei laguntza-lerroa, 588.813 euroren gastua eragin duena. Laguntza-lerro honek bi jarduera-atal ditu:
 - Kirol-jarduerarako laguntzak (108 onuradun).
 - Prestakuntza akademikorako emandako laguntzak (57 onuradun).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E.4 JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK

Idazpuru honetan Sueskola eta Aldaketa klimatikoa dira kopuru esanguratsuenak dituztenak; hona hemen horien xehakapena kontzeptuka:

	Euroak milakotan	
	Sueskola	Klima Aldak.
Errentamenduak eta kanonak	22	44
Konponketak eta zaintza	64	-
Zerbitzu profesional independenteak	44	6
Hornidurak	58	-
Bestelako zerbitzuak	473	387
Beste txiki batzuk.....	71	37
GUZTIRA	732	474

E.5 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2019AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

DESKRIBAPENA	Mota	Euroak milakotan (BEZa barne)		
		Esleipen moldea	Esleipen zenbat.	Egikar. 2019
ZIUR Fundazioa				
Zibersegurtasuneko zentrorako barne egokitzapen integrala.....	Obrak	PIE	282	312
ALDAKETA KLIMATIKOAREN GIPUZKOAKO FUNDAZIOA				
NATURKLIMA Fundazioaren plan estrategikoa	Zerbitzuak	PIE	50	50





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

1.- FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIARI ALEGAZIOIAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- *GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2019an 56 langileri guztira 2 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaaren arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAren 9. artikuluaaren arabera.*

ALEGAZIOA

Diputatuen Kontseiluaren 2013ko urriaren 15eko Erabakiaren bidez (urriaren 17ko GAO, 199. zenbakia) aldatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren Lehenengo Tituluko II. Kapituluari jasotako 2.4 eta 2.5 puntuak. lan hori onartu zen Diputatuen Kontseiluaren 1998ko urtarrilaren 7ko Erabakiaren bidez, eta aldatu zen 1998ko martxoaren 24ko eta 2009ko uztailaren 7ko erabakien bidez.

Zehazki, neurri hauek arautzen dira bertan:

- 2.4 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen edo lan kontratupeko langile finkeen erretiro aurreratua.
- 2.5 neurria.- Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren laneko etekin gisa sartu zituen (190 eredu) 2019an ordaindutako borondatezko erretiroagatik sariak eta uko egite sarituak, eta salbuetsitatzat jo ziren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru arau horretan ezarrita dagoenez, salbuetsitakotzat jotzen dira herri administrazioek giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoen ondorioz langileak kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordainak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoak, 2009ko uztailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketak, berariaz aipatzen ditu foru erakunde honetako plantilla birdimentsionatzeko neurriak, eskura dituen giza baliabideak ordenatu eta planifikatzeko xedez onartutakoak. Aipamen horrek lotura garbia du langileen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Estatutuko 51. artikuluan aurreikusitako antolakuntzazko kausekin, kaleratze kolektiboaren figura arautzen baita bertan.

Beraz, antolakuntzazko kausa hori egoki egiaztatzen da aurreko Giza Baliabideen Plan Estrategikoan, eta beraz, bat dator langileen gastuen arloko araudiarekin.

- *GFAk gizarte zerbitzuetako zortzi kontratu, animaliak tratatzeko lau zerbitzu-kontratu eta ibilgailuak hornitzeko kontratu bat izapidetu ditu SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusten duen 3 hilabeteko aurrerapenik gabe. Aurreko esleipendunek zerbitzuak eta hornidura ematen jarraitzen dute behin kontratuak amaitu ostean; honela, bada, espedienterik gabeko gastua 2019ko ekitaldian 10,8 milioi euro izan da.*

ALEGAZIOAK

Animaliak tratatzeko zerbitzu-kontratuei dagokienez, guztira bost kontratu, guztiak 2019an lizitatu dira prozedura irekiaren bidez, eta 2019ko azarotik 2020ko maiatzera bitartean esleitu dira. Kontratu berri bakoitzaren iraupena urtebetekoa da, eta urtean 4 luzapen egiteko aukera dago.

Ibilgailuen hornidura - Esparru akordio honen tramitazioaren atzerapenaren arrazoia izan zen otsailaren 21eko 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa argitaratu zela. Lege honek hainbat berritasun ezarri zituen Administrazio Publikoek erositako ibilgailuetan, beraz beharrezkotzat jotzen zen bere eragina aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin kontsultatzea eta merkatua aztertzea lizitazio berria prestatzeko.

147.586,17 euroko kontratua, 2019ko urriaren 30ean esleitu zen; hau da, esparru-akordioaren iraupen-epea amaitu eta 5 egunera.

ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA

- *GFAk uste du Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2019an langile bati guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikulua arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAren 9. artikulua arabera (ikus eranskina).*



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Uliazpiko Giza Bitartekoen Plan Estrategikoa Gobernu Batzarrak onartu zuen 2019ko maiatzaren 8an. Haren testuan, III. apartatuan (MEMORIA), haren Aurretiko Tituluan (I. kapitulua. Xedapen orokorrak, eta II. kapituluan (Planaren helburuak eta jarraibideak), eta haren Lehen Tituluan (I. kapitulua. Plantilla gaztetzeta eta haren tamaina doitzeta), deskribatzen dira “jarduketa horiek” kaleratze kolektiboekin eta kausa objektiboen ondoriozko kaleratzeekin edo kargu uzteekin parekatzeko aukera ematen duten jarduketak, neurriak eta datuak.

Hortaz, MEMORIAren III. apartatuak jasotzen duenez, “planak helburu estrategikotzat jotzen du giza baliabideak optimizatzea, kuantitatibo eta kualitatiboki mantentzeko, edo, hala badagokio, handitzeko, erabiltzaileei eta haien familiei edo legezko ordezkariari ematen zaizkien zerbitzuak”.

Helburu estrategiko hori betetzeko, bada, planean bi helburu zehazten dira.

Planaren testuak jarraitu egiten du helburu horiek deskribatzen, eta adierazten bi helburu horiek arrazoi produktibo, ekonomiko edo antolakuntzakoei erantzuten dietela, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren (LELTB) 51. artikuluan xedatutakoei. Horren arrazoiak edo datuak planaren testuan daude, eta horri gatzexkio.

Honako hau ere zehazten da: “Uliazpi nahitaez eta zorrotz antolamendu juridikoaren mendean dagoenez..., adierazi beharra dago erakunde autonomo honetan egiten diren jarduketa guztiek eduki behar dutela legezko oinarri bat eta justifikazio ekonomiko nahikoa. Are gehiago, giza bitartekoak berregituratu eta berrantolatu behar badira eta horrek Uliazpiri kosturen bat badakarkio”.

Hori dela eta, plan honetan jasotako plantillaren tamaina doitzeko neurriak, adibidez, erretiro aurreratua eta enplegatu publiko izaerari uko egitea, biak kalte ordainak dakartzatenak, aurrekontuan tasatutako eta justifikatutako kausen ondoriozkoak izan behar dira.

Kausa horiek antolakuntzakoak eta ekoizpenekoak izan beharko dira, edo ekonomikoak, Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoak. Ez dezagun ahaztu Uliazpiko langile guztiek enplegatu publiko izaera duten arren, agerikoa denez, lan kontratudun langileak direla, eta ez funtzionarioak. Artikulu horren arabera, antolakuntzako kausak gertatzen dira, besteak beste, langileen lan sistemen eta metodoen esparruan aldaketak gertatzen direnean, edo ekoizpena antolatzeko moduan, eta ekoizpeneko kausak daudela aldaketak daudenean, besteak beste, enpresak merkaturatu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

Horrenbestez, garbi dago plantilla gaztetzeko eta haren tamaina doitzeko neurriak, plan honetan jasotakoak, arrazoi horien arabera direla.

Errepikapenak saihesteko, transkribatutakotzat jotzen dugu Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren aurretiko Tituluaren (Xedapen orokorrak) I. kapituluko (Xedapen orokorrak) 1. puntua (Xedea) eta II. kapituluko 4. puntua (Planaren helburuak eta jarraibideak), baita Lehen Tituluaren (Giza bitartekoak optimizatzekeo neurriak eta aurreikuspenak) I. kapituluko (Plantilla gaztetzeta eta haren tamaina doitzeta) lehen paragrafoa ere..



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azkenik, Uliazpiren ezaugarri bat errepikatu beharra dago: bertako langile guztiak, 6/1989 Legean, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoan, jasotakoari jarraituz, lan kontratudun langileak dira, nahiz eta enplegatu publikoak diren, noski. Horrek berretsi egiten du, beraz, planak frogatu egiten duela kausak badaudela, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 5.1. artikuluan xedatutakoak, jarduketa horiek kaleratze kolektiboekin eta kausa objektiboen ondoriozko kaleratzeekin edo kargu uzteekin parekatzeko, salbuetsitako kalte ordainak dituztenekin, 3/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koaren, PFEZari buruzkoaren, 9. artikuluari jarraituz.

Ez dezagun ahaztu administrazio publikoetan aukera dagoela lan kontratudun langileekin enplegua erregulatzeko espedienteak egiteko (EEEak), hau da, kaleratze edo kargu uzte kolektiboak, eta ez dago zalantzarik: planean jasotako neurriak eta arrazoiak bat datoz LELTBaren 51. artikuluko eskakizunekin.

Aipatu beharra dago ere plana, aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteetan jasotako neurriak bezala, langileen legezko ordezkariekin negoziatu eta adostu dela, eta, aztertzen ari garenaren ondoreetarako garrantzitsua dena, jasota dagoela Uliazpiko hitzarmen kolektiboan.

FORU FUNDAZIOAK

- *Adinberrik, Gipuzkoako Klima Aldaketarako Fundazioak eta Ziur Fundazioak, hurrenez hurren, 3, 3 eta 4 lan kontratu finko gauzatu dituzte, birjartze-tasarik izan gabe eta honenbestez, 2018ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean aurreikusitakoa urratuz, 2019an indarrean dagoena.*

ALEGAZIOAK

Gure ustez, Adinberri, Gipuzkoako Klima Aldaketa eta Ziur fundazioen kasuan, ez da urratu 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legean aurreikusitakoa, 2019an indarrean zegoena, langileak kontratatzeari dagokionez.

Lege horrek 19.Bat.7 artikuluan berariaz jasotzen du zer hartu behar den birjarpen-tasa efektibotzat, honako hau ezartzen baitu: "Tasa hori kalkulatzeko, aurreko aurrekontu ekitaldian sektore, eremu, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi zioten enplegatu finkoen kopuruaren eta sektore, kidego edo kategoria horietan sartutako enplegatu finkoen kopuruaren arteko aldeari aplikatuko zaio gehieneko tasaren ehunekoa. Ariketa hori, edozein arrazoirengatik, enplegu publikoko eskaintzetatik datozenak edo lanpostuak gordetzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak izan ezik.

Hau da, birjarpen-tasaren kontzeptuak aurreko aurrekontu ekitaldi batean zerbitzuak emateari utzi zioten enplegatu finkoen kopurua duten administrazio publikoen eta sektore publikoaren jarduteko modua aurreikusten du, eta kasu hori ez da gertatzen aipatutako fundazioetan, erakunde horiek sortu berriak direlako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horri dagokionez, komeni da adieraztea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 21eko 7/2018 Foru Arauaren 27. artikulua honako hau jasotzen zuela 27.2 artikuluan: "2019ko ekitaldian sortzen diren foru-sektore publikoko erakundeek beren langile-plantilla onartu ahal izango dute hasierako aurrekontuan agertzen diren aurreikuspenen arabera".

Betetako lanpostuak aurrekontuan jasota eta Bideragarritasun Azterlanean jasota zeuden, hau da, hutsik eta okupatzailerik gabe zeuden lanpostu batzuk ziren, eta ez zitzairen aplikatu hautaketa-prozesuen bidez bete ziren langileen berritze-tasaren kalkulua.

2.- BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK ALEGAZIOAK

A.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2.A.1.- "III.A.1- AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

- *GFAREN konpromiso-kredituen aurrekontuaren % 31,6 soilik iristen da gastua baimentzeko fasera eta 115,2 milioi euro aurrekontu-fasean geratzen da, egikaritu gabe. Horregatik guztiagatik, uste dugu konpromiso-kredituen aurrekontua berrikusi beharko litzatekeela, ekitaldian aurreikusi diren urte anitzeko jarduketak modu xehakatuan gehitzeko.*

ALEGAZIOAK

BELABIETAKO TUNELA

Hasierako planteamendua zen 2019an obrak kontratatzeko eta obrak zuzentzeko espedienteak onartzea, eta 2020an egikaritzen hasia.

Alde horretatik, proiektua idazteko laguntza teknikoko kontratudunak proiektua 2019/11/22an entregatu zuen eta jaso zen kontratugaia. Horrek aukera ematen zuen 2019an lizitatzeko.

Hala ere, idatzitako proiektua sakon aztertu eta lizitaziorako oinarritzko aurrekontua ikusi ondoren, beharrezkotzat jo zen berrikusitako proiektu bat idaztea, egokitzapen tekniko eta ekonomiko batzuk egiteko.

Hori dela eta, ezin izan ziren bete 2019ko aurrekontua egin zeneko aurreikuspenak.

GI-631 AZKOITIA-URRETXU ERREPIDEAREN HOBEKUNTZA

GI-631 ERREPIDEKO 26,600 KP-TIK 27,800 KP-RA BITARTEAN AURRERATZEKO TARTE BAT ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN idazketa atzeratu egin zen, Uraren Euskal Agentziak hasierako planteamenduaren aurkako txostena egin zuelako. Horren ondorioz, aurreikusitako soberakinen biltegia kendu eta beste proiektu bat idatzi behar izan zen, obraren soberakinak beste era batera konpontzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Testuinguru horretan, hasieran ematen zuena baino nekezagoa izan zen soberakin biltegiaren ordezkotik irtenbide bat aurkitzea, eta horrek proiektua idazteko atzerapena eragin zuen, eta ezin izan ziren 2019ko aurrekontua egin zeneko aurreikuspenak bete, oso konplexua baitzen proiektuan kontuan hartu beharreko konponbide berrien azterketa.

Hori dela eta, ezin izan ziren bete 2019ko aurrekontua egin zeneko aurreikuspenak.

MARRUTXIPI LOTUNEA GI-20AN

DONOSTIAKO GI-20 SAIHESBIDEAN MARRUTXIPIKO LOTUNEA EGITEKO PROIEKTUAREN idazketa 2019an amaitu zen.

Hala ere, Donostiako Udalarekin koordinatzeko arazoak zirela medio, ezinezkoa izan zen proiektuaren onarpena izapidetzea eta kontratazio-espedientea izapidetzea.

2.A.2.- "III.A.2- ZERGA SARRERAK" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

- 2019ko ekitaldian zorra zatikatzeko zazpi eskabide daude, 4,8 milioi euroren hasierako zenbatekoa zutenak; horiek, baina, ebazteko daude oraindik eta zatikapena emateko finkatutako gehieneko epea baino antzinateasun handiagoa daukate, 6 hilabetekoa dena.

ALEGAZIOA

Ezer baino lehen esan behar da une honetan ez dagoela erantzun beharreko eskaerarik 6 hilabete baino gehiagoko iraupena duenik.

Aipatutako espedientei dagokionez:

1. ENPRESA: 855.892,60 euro.

Zorra ordainduta dago. Eskaera honetan behin behineko ordainketa plana ezarri zen, bete zena, eta ezaguna zen BEZan itzulketa eskaera espedientearekin bukatzeko erabiliko zena. Hori horrela gertatu zen 2020ko martxoaren 3an.

2. ENPRESA: 327.647,79 euro.

Zorra ordainduta dago. Eskaera honetan behin behineko ordainketa plana ezarri zen, bete zena, eta ezaguna zen BEZan itzulketa eskaera espedientearekin bukatzeko erabiliko zena. Hori horrela gertatu zen 2020ko apirilaren 3an.

3. ENPRESA: 426.401,06 euro.

Eskaera honetan behin behineko ordainketa plana ezarri zen, bete zena. Ukatu ondoren premiamenduzko prozedurako jarduketak hasi ziren eta berriro zorra geroratzeko eskatu



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zuen. Kasu honetan bermerik gabe onartu egin zen, Zergabilketa Araudiaren arabera. Gaur egun ordainketa plana betetzen ari da eta pendiente dagoen zorra 219.367,48 eurokoa da.

4. ENPRESA: 288.325 euro.

5. ENPRESA: 1.412.884 euro.

6. ENPRESA: 1.399.594 euro.

Hiru entitateak talde berdinekoak dira. Zor guztia epe exekutiboan dago eta bermatuta dago mugiezinen gaineko hipotekarekin. Exekuzioa hasiko gara.

2.A.3.- "III.A.3- ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATZEA" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Kontratazio-espeditentak

- *Guztira 18,4 milioi euroan esleitutako hamaika espeditentetan (9, 12tik 18ra, 20, 21 eta 29 zk. espeditentak), "prezioa" irizpidea baloratzeko erabiltzen den formulak ez ditu jarraitzen 2018ko ekainean Foru Gobernuaren Kontseiluak kontratazioaren kudeaketan onartutako praktika egokien gomendioak, formula hori erabiltzeko arrazoiak arrazoitu gabe.*

ALEGAZIOAK

12tik 18ra espeditentak:

Diputatuen Kontseiluak, 2018ko ekainaren 19ko erabakiaren bidez, "Kontratazioa kudeatzeko jardunbide egokiei buruzko gidalerroak" onartu zituen. Gidalerro horietan, oro har, formula jakin bat erabiltzea gomendatzen da, baina ez da behartzen orokorrean erabiltzera. Izan ere, geroagoko erabakien bidez, Diputatuen Kontseiluak baimena eman zuen eta onartu egiten du prezioa baloratzeko beste formula bat erabiltzea Bide Azpiegituren Departamentuko espeditentetan, baina horrek ez du 2018ko erabakiaren aurka egiten, eta erabaki horien artean daude 12tik 18ra bitarteko espeditentak. Onarpen horiek berretsi egiten dute formula hori bidezkoa dela.

Espeditenteko justifikazioari dagokionez, esan behar da formula hori hainbat aldaerarekin erabiltzen duela Bide Azpiegituretako Departamentuak duela hamarkada batetik hona. Bere garaian formula horren aplikazioa justifikatu zen, eta hainbat irizpideren arabera esleitzen diren espeditente guztietan aplikatzen da; beraz, espeditente bakoitzean banan-banan justifikatzen ez bada ere, orokorrean justifikatua dago.

Puntuak banatzeko erabilitako era formula jarraitu bat da, eta gehieneko puntuazioa gehieneko bajari dagokio, eta 0 puntuazioa 0 bajako eskaintzari (lizitazio tipoa). Jarraitua



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

bada ere, 4 tarte ditu, bakoitzak malda uniforme duela, eta malda handiagoa da baja txikieneko tartetan, eta txikiagoa da gehieneko beherakadatik hurbilen dauden tartetan. Malda-aldaketaren puntu bereziak aurkeztutako baja guztien konposizio gisa lortzen diren puntuak dira; zehazki, batez besteko beherakadari eta gehieneko beherakadari dagokienez. Batez besteko bajei eta gehieneko bajei buruzko erreferentziak hartzen dira, ezin direlako erreferentziatu balio absolutuko tartek, eskaintza guztiak horietan zentratzera eramango bailukete.

Batez besteko jaitsiera erreferentzia gisa erabiltzeko arrazoia da batez besteko jaitsiera dela, hain zuzen ere, merkatuko teoriko batetik hurbilen dagoen prezioa. Batez besteko eta gehieneko jaitsieraren arteko maldak txikiagoak dira, prezioaren murrizketari balio txikiagoa ematearren eta, horrela, ausarkeria-mekanismoetan sartzea saihestearren, mekanismo horiek, bestalde, bidegabeak baitira; izan ere, ausarkeriazko jaitsiera bat 1 euroko diferentziaz bota liteke atzera, zenbakizko balio absolutua delako. Jaitsiera txikieneko tartetan maldak txikiagoak dira, ausarkeriatik gertuko tartetik kanpo daudelako eta zerbitzuen prestazioan produktibitate baxuak edukitzeko edo eskaintza ixtean irabazi-marjina handiagoak izateko aurreikuspenekin lotutako eskaintzak direlako. Formula hori kautelazko mekanismo progresibo gisa ulertzen da, batez besteko jaitsieratik aurrera ausarkeriazko baja handiak saihesteko.

Azken batean, formula honen bidez, prezio onena duen eskaintzari puntuazio handiagoa eman behar zaio eta zero puntu eman behar zaizkio lizitazioaren aurrekontuarekin bat datorren eskaintzari, Europako nahiz estatuko araudiak horri buruz ezarritakoa errespetatuz, bai eta kontsulta- edo fiskalizazio-organoen irizpen, txosten edo gomendioak ere.

Ondorio horietarako, adierazi behar da, Kontratu Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Nagusiak 2020ko maiatzaren 14ko 600/2020 Ebazpenean adierazten duen bezala, "*...la fijación ... de los criterios de adjudicación es una facultad discrecional del órgano de contratación dentro de los parámetros reglados establecidos por los artículos 100 a102, 145 y 146 de la LCSP, pues al órgano de contratación a quien le corresponde fijar las necesidades a satisfacer, y atendiendo a aquellos elementos determinantes de la adjudicación para obtener una oferta que, por reunir una mejor relación calidad-precio, sea la más adecuada para una buena ejecución del contrato*".

Era berean, kontuan hartu behar da Kontratu Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Nagusiaren doktrinarik berriena, zeinak aurretik zuen jarrera berrikusi baitu, betiere eskaintza ekonomikoak baloratzeko irizpideetan asetasun-atalaseak ezartzearen aurkakoa zena (horren adibide dira maiatzaren 14ko 600/2020 ebazpena, uztailearen 18ko 853/2019 ebazpena eta 2019ko maiatzaren 9ko 484/2019 ebazpena).

Azken ebazpen horrek, 2019ko maiatzaren 9ko 484/2019 zenbakikoak, honako hau adierazten du, besteak beste, zazpigarren zuzenbide oinarrian:

“En quinto lugar, en modo alguno puede afirmarse que solo cabe combatir la oferta de precios excesivamente bajos mediante el procedimiento de las ofertas anormalmente bajas o temerarias que puede conducir a la exclusión de la oferta temeraria, y no mediante la adopción de medidas complementarias que

desincentiven la excesiva bajada de precios, como la reducción progresiva de la puntuación a partir de un determinado nivel de reducción de los precios, o la no concesión de puntos adicionales a las ofertas que sean inferiores a una determinada cifra (umbral de saciedad), pues si se puede lo más, se puede lo menos, que es, frente a la exclusión de la oferta anormal, la no asignación de más puntos a las ofertas de precio inferior al umbral establecido.”

“es lo que determina que no pueda ya, actualmente afirmarse, en modo alguno que no es admisible legalmente establecer en el PCAP índices de saciedad que limiten en la aplicación de la valoración de la oferta económica mediante el criterio precio la atribución del máximo de puntos posibles a las ofertas que alcancen un máximo de baja, de forma que a partir de ese límite no puedan obtenerse más puntos aunque minoren el precio más allá del citado límite”

“Pues bien, es evidente que la citada fórmula es perfectamente conciliable con las consideraciones que, según lo expuesto más arriba, comparte este Tribunal y con las adicionales que se han expuesto, en especial, con las relativas a las novedades que al respecto han introducido la Directiva 2014/24 y la LCSP, de forma que, en todo caso, se cumplen el principio y norma de discrecionalidad del órgano de contratación en la delimitación de los criterios que configuran la relación coste-eficacia y relación calidad-precio en el PCAP para determinar la oferta económicamente más ventajosa, siempre con respeto a la norma de que el precio que no es el más bajo no obtenga mayor puntuación que el precio menor o, a la inversa, que el precio más bajo no obtenga menos puntos que otro que es mayor, pero que percibe también el máximo de puntos posibles al alcázar el índice establecido de saciedad, cuyo establecimiento es plenamente admisible a la luz de la citada Directiva, sin que ello implique menoscabo o lesión del principio de control del gasto y el de economía en la contratación pública”

Hain zuzen ere, 12-18 erreferentziako espedienteetan erabilitako formula bat dator doktrina horrekin.

29. espedientea: “Leitzaran ibaian (Elduain) Oloki presa txikia eraisteko proiektua, 2. Fasea”.

Kontratazio publikoari buruz indarrean dagoen araudiak kalitate-prezio erlazio onenaren arabera esleitzeko irizpidea zehazten du, «kalitate handiko obrak, hornidurak eta zerbitzuak» lortu ahal izateko, Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren zioen azalpenak dioen bezala. Hori bereziki esanguratsua da obra kontratuetan, gizarte eta ingurumen eskakizunak lehentasunezkoak baitira, eta hori ez da lortzen enkante klasikoaren ereduari jarraitzen dioten formulen bidez.

Horrelako kontratuetan, ez da komenigarritzat jotzen eskaintzen arteko alde ekonomikoa gehiegi baloratzea. Horren ondorioz, eskaintza ekonomikoan alde txiki bat dagoenez, teknikoki baliotsua ez den eskaintza batek balorazio osoan puntu gehiago lor ditzake



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

teknikoki askoz ere hobea eta apur bat garestiagoa den eskaintza batek baino. Distortsio hori kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioaren aurkakoa izango litzateke, kontratuen legeria berriaren arabera kontratuak esleitzeko inspirazio iturri izan behar baitu.

Proposatutako formula bat dator kontratazioan gardentasuna izateko legezko eskakizunarekin; izan ere, lizitatzailleek arrazoiz aurreikus dezakete teknikoki kalitatezkoa den eskaintza bat aurkeztera bideratutako ahalegina eta ahalik eta preziorik merkeena eskaintzeko ahalegina bat etortzea eta horien arteko proportzioa.

- *Guztira 10,5 milioi euroan esleitutako hamabi espedientetan (1, 3, 4, 5, 7tik 11ra, 20, 21 eta 29 zk. espedienteak), esleipen-irizpideen artean ez dira barne hartu ez irizpide sozialak ez ingurumenekoak ere, eta horiek % 5eko gutxieneko haztapena izan beharko lukete obren kasuan, eta % 10ekoa horniduren eta zerbitzuen kasuan; halaber, ez da erantsi irizpide horiek erabiltzearen komenigarritasunik eza justifikatzen duen txosten arrazoiturik, sektore publikoko kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeari buruzko 11/2014 Foru Arauaren 12.3 artikulua agintzen duen moduan.*

ALEGAZIOAK

1. espedientea: “GFAko langileak lan ingurunean euskara erabiltzeko gaitzea”.

Espedientearen memorian, 9 - Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak puntuaren amaieran argipen hau ematen da:

Ezaugarri teknikoan agirian ez da jasotzen esleipen irizpide sozial edo ingurumenekorik, ez baitago balioetsi daitekeen irizpiderik kontratuaren xederarekin lotu daitezkeen eremuetan.

Kontratazioaren espedientearen ez gauen 11/2014 Foru Arauaren 12.3 artikulua eskatzen duen txostenik erantsi, kontratuaren gaia prestakuntza zerbitzuak direnez. Hala, kontratatu nahi zen zerbitzuaren gain ez genituen aplikagarri ikusten aipatutako foru arauaren 15-18. artikuluetan zehazten diren irizpideak.

Dena dela, aipatu dugun espedientearen memoriaren 9. puntuan, zenbait baldintza berezi aipatzen ziren, kontratua gauzatzeko aintzat hartu beharrekoak, besteak beste, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubideaz eta genero berdintasunaren ikuspegiaz.

Nolanahi den ere, hurrengo kontratazio espedienteetan berariazko txostena arrazoitu bat eransteko oharra hartzen dugu

3 eta 4. espedienteak: “Udalei haur, nerabe eta gazteen sustapenari buruzko aholkularitza ematea” eta “7 eta 13 urte bitarteko umeentzako udalekuak”.

Irizpide sozialak espediente honen kudeatzaileak, hau da, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Sailak izapidetutako Kontratazio espediente guzti guztietan jasotzen dira, betearazteko betebeharrak bereziki kategorian (Administrazio Klausulen Agiriaren 38.2



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

klausula, Zerbitzuen Kontratuaren Eredua - Prozedura Irekia). Kontratu horretan erabaki zen klausula horiek sartuta 11/2014 Foru Arauaren helburuak betetzen zirela.

29. espedientea: “Leitzaran ibaian (Elduain) Olloki presa txikia eraisteko proiektua, 2. Fasea”.

Erreferentziako kontratuan, obra kontratu ireki sinplifikatuan, 75 puntu ematen zaizkie formula aritmetikoak aplikatuz baloratu beharreko irizpideei, eta 25 puntu balio judizioen bidez baloratu beharreko irizpideei. Azken horien barruan, hobekuntza tekniko gisa, 2 puntu ematen zaizkie *«hondeaketako produktuak berrerabiltzeko aukera edo birziklatutako idorrak eta eraikuntzako materialak erabiltzeko aukera eman emateari – erainkuntzako eta eraispeneko hondakinen balorizazio eragiketa batetik eratorritakoak–, edo zaraten edo partikulen emisioak murrizteari»*.

Obra honen proiektuak ingurumen-arloko betebeharrak batzuk dituzte, eta horiek proiektuaren dokumentuetan jasota daude; hau da, kontratu-betebeharrak gisa jaso dira, proiektuetan ezarritakoaren arabera.

Bere garaian, balorazio irizpideetan beste kontzeptu batzuk txertatzeko aukera ere aztertu zen. Adibidez, ingurumen kudeaketako zigilu edo ziurtagiriak, obrako makinaren emisio ziurtagiriak, materialen bitzita baliagarriaren zikloaren iraunkortasunari buruzkoak eta abar.

Hala ere, ez zen erabili, zeren eta, alde batetik, baloratzeko zailak baitziren, eta, bestetik, enpresa lizitatzaileren lehia mugatu zezaketelako.

Ondorioz, ingurumen baldintzatzaileak nahitaez bete beharreko baldintza gisa sartzea erabaki da, eta, ez adjudikazio irizpide gisa.

Aurrekoa gorabehera, azken lizitazioetan ingurumen osagaiei pisu handiagoa emateko aukera ikusi da, Ingurumena Kudeatzeko Planaren (HAP) bidez. Beraz, ingurumen irizpideak balorazio irizpideen eremuan garrantzi handiagoa izateko bidea aurkitu da, eta alderdi hori aurreko ekitaldiko obra kontratuetan txertatu da.

- *Guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espedientetan (5, 6 eta 8 espedienteak), esleipen-ebazpenak ez du esleipen hori eragin duen arrazoia jasotzen.*

ALEGAZIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontu Auzitegiak aipatutako hiru espedienteetan puntuazioa esleitzeko prozeduraren azalpena eta, puntuazioa emateko arrazoibide zehaztua, entitate honen kontratatzailearen profilean kontsulta daiteken esleipen irizpideen txosten teknikoan agertzen da; horrela, betetzen dira indarrean dagoen legediak eskatutako motibazio betebeharrak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratazioko espedienterik gabeko gastua eta kontratu txikiak

- *Ekitaldian zehar, suhiltzaileen hainbat janzkien hornidura erosi da, hamar enpresarekin, eta ekitaldian 139.165 euroren gastua eragin dute eta suhiltzaileen ibilgailuen mantentze-zerbitzua, berriz, sei enpresarekin kontratatu da, guztira 135.781 euroan; ordea, litekeena zen prozedura ireki sinplifikatu batzuk izapidetzea.*

ALEGAZIOA

Jantzien hornidurari dagokionez, espedienteak hainbat motatako jantzien hornitzaileekin lotuta daude, 2019ko ekitaldian gertakaera puntuala ea ezustekoa gertatu zen, suhiltzaileen kopurua 48 programen bidez handitu zen eta suhiltzaile horiek epe oso laburrean ekipatu behar izan ziren.

Ibilgailuen mantentzeari dagokionez, kontratazio horretarako esparru-akordio bat egiteko lantzen ari da, suhiltzaile-zerbitzuaren eraginkortasuna bermatu beharko duena (suhiltzaile-parke bakoitzetik ahalik eta hurbilen dagoen tailer batean premiazko konponketak).

2.A.4.- "III.A.4- DIRULAGUNTZAK" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOIAK

Alderdi orokorrak

- *Bost espedientetan ikusi dugu onuradunak ez duela eskagarria den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana egiaztatu (dirulaguntza izendunen 5. eta 7. espedienteak; dirulaguntza zuzenen 9. espedienteak, deialdien 6. espedienteko bi eranskin eta aurreko urteetako 5. espedienteak) (ikus B.14).*

ALEGAZIOA

Zerbitzuen bitartez, onuradunei eskatuko zaie justifikazio informazioa osatzeko.

Dirulaguntza izendunak

- *Irabazi asmorik gabeko bi erakunderi emandako bi dirulaguntzatan (1 eta 6 espedienteak), guztira 276.292 euroren zenbatekodunak, ez da diruz lagundutako jardueraren aurrekontu bat aurkeztu.*



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

1. espedientea: Euskal Herriko Unibertsitatea Jose Azurmendi Katedra.

Dirulaguntzaren espedientearen hura emateko arrazoitu zuen onuradunak aurkeztutako proiektua jadanik badago eta honen barruan aurrekontua jasotzen da. 3. eranskinean erantsi da.

